



# ARGIA

## FLOREN AOIZ

«Sakonean dauden arazo politikoak ezin dira konpondu alderdien artean»

## KATALUNIA

Esquerra barruan Bartzelona dela eta lehertu da ekaitza

## PRESOAK

Sakabanaketak zigor bikoitza ezartzen die preso eta senideei

## KULTURA

Urruñan «Balizko erroten erresuma» ikuskizun berria ari dira prestatzen



XABIER ARZALLUZ

«HERRIAK NAHI AL DITU ABERTZALEON HELBURUAK?»





# Estudioa

ETXEZARRETA BASERRIA - AMASA



*Harri eta zurez eraikitako baserri honetan gaude, Amasa Billabonan.  
Bertan ditugu grabaketa kontrol eta zerbitzu osagarrien gelak.*



*220 metro karratu eta 6,80 metrotako altuera  
dituen gela nagusia. Harri eta zurez eraikia  
izateagatik, moeta guztietako grabaketarako  
akustikarik onena eskaintzen du.*



*60 metro karratuko kontrol ROM bat.*



*(AMEK -6 2520) 40 kanale automatizatu dituen  
mahai batez eta 24 pistako (JBL ■ 4430 /  
NestLake ■ BBSM-6 / YAMAHA NS ■ 10m  
magnetofoi batez hornitua dago.*



*Efektu aukerarik zabalena.*




- 6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.
- 8. Floren Aoiz, Herri Batasunako bozeramailea. «Sakoneko arazo politikoak ezin dira alderdi politikoaren artean konpondu». MIKEL JAUREGI.
- 12. Asteazken zehar. XABIER LETONA.
- 14. Bartzelonako alkatezarako hautagaitzak lehertu du krisia. Ekaitza Esquerran. PACO SOTO
- 18. Jose Ignacio Aldekoa, MCCren Kooperatiba Kongresuko lehendakaria. «Lehiakidea baino gehiago hobetzea da kontua». XABIER LETONA.
- 20. Sakabanaketak zigor bikoitza ezartzen die euskal preso politikoei eta beren senitartekoei. Distantziaren balio erantsia. ARANTXA ERASUN eta AINHARA ZUAZABETIA.
- 24. Iparraldeko hiru irratien aitzineratzeko urrats berriak hasiak dira. Euskarazko uhinez Iparraldea bustitzerara. JOJO BIDART
- 28. Xabier Arzalluz: «Antxon Miamira-edo eramanda elkarriketa saiatzeko plana zegoen». PELLO ZUBIRIA.
- 34. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
- 37. Antxon Ezeizak «Zorionak tovaritx» filmatu du. J.J. PETRIKORENA.
- 40. Martxoaren 5ean abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. IMANOL GARCIA eta GUILLERMO GURRUTXAGA.
- 43. «Balizko erroten erresuma» jaialdia egingo da Urruñan apirilean. JOXE JOAKIN DEL CURA.
- 46. Kultura agenda.
- 48. Argitalpenak.
- 50. Aukeran. AINHOA GERRA.
- 56. Denborapasa.
- 58. «Genius loci». KOLDO IZAGIRRE.



**XABIER ARZALLUZ:**Euskal politikagintzan eta Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan hain pertsona esanguratsua bilakatu den Xabier Arzalluzek Sabin-Etxean eskaini digun elkarriketa, Narcis Serrarekin hitzegitera joan bezperan. Aktualitate sutsuko gaiak izan ditugu alde batetik solasgai, eta jeltzaleen etorkizuneko ildoen nondik norakoa begi aurrean. Orain artean komunikabideen aurrean isilik gordetako datu bat ere aitatu digu ozen Xabier Arzalluzek, negoziazioaren inguruan egindako saioen gainean. /28

**POLITIKA:**Herri Batasunako belaunaldi berriko aurpegi ezagunena dugu Floren Aoiz. 28 urte baino ez, eta urte mordoska politikagintzan, Jarraitik HBrako bidea eginez. Donostiako HBren egoitzan elkartu gara tafallarrarekin, besteak beste, GAL aferaz, HBren barruko eztabaidaz eta beste zenbait gairen inguruan hitz egiteko asmoz. /8



**NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA:**Martxoaren 5ean Alduden hasi, eta hilabete pasatxoko martxan, Nafarroako bertsolaritzari urteko zitarik entzutetsuenak iritsiko zaizkio Doneztebe, Barañain eta Leitzañan. Usain gaztez eta itxura helduaz dator zita. /40



*Jalgi Hadi  
euskaraz!*

1995eko martxoaren 17tik 26ra

**D.GARAZI-GASTEIZ**



aguntzalea



**ARGIA**



## Idazle edo disidente

GUILLERMO Cabrera Infante ekarri duzue euskal orriotara eta Kubari buruzko bere 'iritzia' eman dezan zabaldu diozue aldizkaria. Eta sugeari behin haragia jarrita hortzen aurrean, kosk gogorrena egin eta duen pozoina osorik bota du.

Pentsatzen dut ez dela oso erraza izango denen gustoko gai eta pertsonaiak aukeratzea, baina oraingo honetan egin duzuen espainolek «rigor» esaten dioten hori gabe egin izan dela iruditzen zait, deigarritasunaren izenean apur bat. Batez ere elkarrizketak zuen tonuagatik, ez pertsonaia beragatik.

Kubako iraultzatik exiliatutako eza-gunetakoa da, beste hainbatek bezala eman zaion bozgorailua eta bere luma erabili dituen erregimena gogor salatzeke. Aukera politikoa da hori eta ez naiz neu sartuko Kubako politika eztabaidatzera -nahiz eta esango dudana, kanpotik, ez nagoela ados esaten diuenarekin-, baina nire iritziz ez duzue asmatu. Ohizkoa izaten da arau orokor eta pentsamendu jeneraletik kanpo dabilenari, tinko irauten duenean, pitzadura txikiena bilatzea zulo ikaragarria bailitzan aurkezteko. Edo pitzadura asmatzea. Disidentzia txikienari ematen zaio garrantzia, berau egiten da deigarri, disidentzia horren izenean beste-lako lorpenak ezkutatu.

Behin Londreseraino joanez gero, Cabrera Infante ez beste norbait hauta

zitekeen, eta Kubako egungo erregimen eta agintariei buruz kristorenak eta bi esan baino literaturaz eta zinemaz ere hitz egin zitekeen. Horretan nabarmendu baita jaun hau, ez disidentzia politikoan. Horretara jarrita bere aurkezpenean «idazle» beharrean hobe zenukete «disidente politiko» jarri izana.

**AITOR DIAZ DE SABANDO  
GASTEIZ**

## Etxekoen gurutzeta

Toshacken itzalean hainbat urte eta Realean lanean bizitza osoa eman eta gero, atzenean taldea zuzentzeko aukera iritsi zaio Salva Iriarteri. Eta ez du makal bete, ez horixe. Ligan hamaika partidu galdu gabe, zulotik aterata eta Athletic bera ere bi puntura, zenbakiek garbi adierazten dute egindako lana. Baita jokalarien indar eta gogoak ere.

Juxtu oraintxe, hurbileko etorkizunera baikor begiratzetik dagoenean direktiba atera da berriro bere lelokeriekin. Iriarteren etorkizuna zalantzan jarri eta beste entrenadore baten beharra izango den kuestionatzen. Beraien ohiturak ezagututa, gainera, ez litzateke harriztekoa berriro ere atzerritar bat ekartzea, oso famatua. Honek gure etxean nahi duena egin eta, tira, alde eginez gero ere hondarrak konpon di-

tzatela bertakoek. Betikoa.

Uste dut garaia dela direktibak lanean fin ari denari segi dezan laguntzea, areago etxekoa izan eta oso lan ona egiten ari denean.

**MERTXE ELOSEGI  
BEASAIN (GIPUZKOA)**

## OHARRA:

Sail hau interesgarri litekeen edozein gairi buruz, ARGIAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da. Gutunak, ahal dela, ez du folio erditik gora izango eta bertan, igorlearen izen-deiturak azalduko dira. Gutun hauek ARGIA, Zirkuitu Ibilbidea 1 eta 2 pabiloiak, 20160 Lasarte-Oria helbidera bidali behar dira.


**JABEA:** ZERUKO ARGIA, S.A.L.  
**LEHENDAKARIA:** Joxe Mari Irazusta.  
**ZUZENDARIA:** Pello Zubiria.

## HELBIDEAK

**GIPUZKOA:** Zirkuitu ibilbidea, 1 eta 2 pabiloiak. 20160 Lasarte-Oria.  
Tlf: 37 15 45. Faxa: 36 10 48.  
**BIZKAIA:** Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo.  
Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.  
**NAFARROA:** Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea.  
Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.  
**IPARRALDEA:** Harrobiko Etxea, 64122 Urruña.  
Fax-Tlf: 47 17 10


**LEGE GORDAILUA:** NA 80-1963.  
**ISSN:** 0213-909X.  
**BATZORDE PAREKIDEA:**  
72562 E.

**INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA:**  
Antza, S.A.L.



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san Sebastián



Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa  
Kultura eta Turismo Departamendua



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren  
laguntza jaso du

# Kisiera ser alkate Donostiyakua

**ANTZINAKO** Euskadiko Ezkerako jendeek beren argazki eta sinadurarekin batera kapital inportante bat ekarriko dietelakoan erabaki dute EAJk eta PSEk Donostiako zinegotzigai zerrendetan bana aurkeztea bigarren postuan. Koro Garmendiarena aspalditik entzuten zen: iazko udaberrian Gipuzkoako nazionalismoaren berrikuntzarako manifestua sinatu zuenetik jeltkideen inguruan zebilela esan zen, Txaro Arteagaren ordezkoko ere aipatu zuen zenbaitek, eta Antton Marketen bigarren ipini dute azkenean, atzerago beste EUEkide bat, Iñaki Gurrutxaga, duela.

Ramon Etxezarreta urrestildarra Azpeitiko EEko kontzejal ezagutu genuenok nekez sinets genezakeen Donostiakoan sartzeko umorerik izango zuenik, norekin eta PSErekin, Mario Onandiarekiko bere adiskidetasuna gor-

behera. Hor daukagu, Odon Elortzaren bigarren. Donostian EEk izan zituen bezeroei erantsi nahi diete eskua EAJk bezala PSEk, progresiaren barniza komeni zaiolakoan batak, eta falta duen euskaltzaletasun ukitua emango diolakoan bigarrenak, boto galera nondik eta nola goxatuko. Botu gutxiren tartean dabilza Gipuzkoako hiriburuan bost alderdi nagusiak, eta maiatzeankutxako oihalik ederrenak erakutsi beharra daukate. Ordoñez galduta, PPK Mayor Orejarekin jo du ordagoa, eta EAK beriz DVko Enrique Erentxunekin, Albistur berri bat suertatuko ote

zaien erreparoz bada ere. Egunotan Oldartzen eztabaidari berriro ekiten dion HBk lauak izango ditu aurrez aurre.

**ELKARRIK** arazoak HBrekin bakarrik zituela zirudien azken denborotan, mihian edo luman politika darabilgun guztiok Ezker Abertzaleak Elkarriz dituen iritzi ezberdin eta kontrajarriak aztertzen aritu garelako. Baina sozialistek egin diotena arazo, kritika edo desadostasuna baino gehiago ipurdiko galanta ematea izan da. Bilbon Elkarrik antolatutako bake konferentziara joateko erabakia Ajuria Eneko mahiaren

**Donostian EEk izan zituen bezeroei erantsi nahi diete eskua EAJk progresiaren barniza komeni zaiolako, eta falta duen euskaltzale ukitua emango diolakoan PSEk**

Bidarrain —Nafarroa Beherea— 1986ko otsailaren GALEk burututako hilketaren dossierrak mugitzen hasi dira. Itsasuko Christophe Matchicote eta Catherine Brion gaztetxoak hil zituzten otsailaren 17 hartan, errefuxiatuak zirelakoan. Valentziako txofer bat preso hartzeko agindua eman du Pabeko fiskalak, eta «Interviú» astekariak hilketan parte hartu zuen mertzenari bat aurkitu du, inguruko auzoetako biztanleak ere hil nahi zituztela dioena.

(Argazkia: «Egin»).



esku ipintzea aipatu zuten estraina PSEko buruek, Iruñeko ihardunaldietan —Nafarroaren etorkizuna— Aladino Colinek erakutsi zuen jarrera probokadoreak ez zuen ezer onik iragartzeko, geroztik konferentziaren ardatzen artean «subiranotasuna» ipini ordez «autonomia» jarri zedin presioa egin zutela jakin zen... azkenean ez doazela iragartzeko.

Espainiako bi indar nagusien ordezkariak —Euskal Herrian ere nagusi direnak— ez joatean, hankamotz uzten dute Elkarriren Bilboko hasierako helburua, nahiz eta horien inguruko ordezkariak izango den, hala nola PSEko gazteria. Ikusten da sozialistak eta kontserbadoreak ez daudela esperimintuetarako. Beste batzuek aldiz ordezkariak sendo bat bidaliz egingo dute emango diote garrantzai ekintzari; jeldikeek, adibidez, EBBko Ollora, Egibar eta Agirre bidaliko dituztela iragarri dute, HBrekin izan zituzten azken elkarriketetan mahaian eserit ziren hirurak berak. Ikusi behar Jonan Fernandez koadrilak baldintza berri horietan Bilbon zer ateratzen duen. Baina errezilagarrik ezean goldenak ere esmatzeko egoeran gaude.


**LEGEBILTZARRAK**, Gasteizkoak, ez luke barne azterketa zorrotz bat egin gabe pasatzen utzi behar Juan Calvoren heriotzarekin gertatu dena. Ez da posible Ertzaintzaren buruzagitzaren bertsio ofiziala bere garaian ontzat eman, eta orain epaileek sei ertzainei ezarri dizkien zigorrak gure parlamentariak minutu bateko loa bederen kendu gabe uztea. Ez du balio auzitegiatako bidea bat eta politikoa beste bat direla argudiatzea. Sarjentuari azkenean sei urteak hirutan utziko balizkiote ere berdintsu litzateke Legebiltzarrari dago-kionez. Tortura izan liteke, tratu txarra, hanka sartzea edo nahi dena. Baina Juan Calvo ez zen hil bere garaian kontatu zitzaigun legez. Herritarrok esprikazio bat merezi dugu, eta Legebiltzarraren sinesgarritasunak derrigorrez eskatzen du.

**PELLO ZUBIRIA**

## G O R D E T Z E K O A K

### EA KANPORA GELDITUKO EHU ETA KONTUEN EPAITEGITIK

Eusko Alkartasunak senadore bat eskuratzeagatik PPrekin tratua egin zuenetik, Jaurlaritza osatzeko hiruko hitzarmenean espreski lotuak ez zeuden erabakietan kanpoan lagatzen dute EAJ eta PSEk. Euskal Herriko Unibertsitateko Kontseiluan zortzi postuetatik bost bien artean banatuko dituzte, eta Kontuen Euskal Epaitegian diren zazpietatik sei ere bai. GAL Legebiltzarrean ikertzeko batzorde bat osatzeko proposamena berriro IU eta HBk aurkezten dutenerako EA «bigunago» egon dadin.



## JOSEBA AZKARRAGAREN TARTEA

### SENATURA JOAN, ZERTARA?

#### «Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatzera»

ESPAINIAKO Konstituzioak biganbara sistema eratua du garapen legegilerako. Arazoa ez da sistema hau hautatu izana, baizik eta ganbaratako baten eduki falta, hain zuzen ere Senatua.

Ganbara autonomiko moduan aurrikusitakoa atzenean bigarren irakurketarako ganbara bihurtu da, Kongresuan egiten denaren errepikatzailea, alegia; lurralde ordezkariak hipotetiko batekin, baina eskuduntza errealik gabe Autonomien Estatua deitutako ordenamenduaren baitan.

Ganbara honen etorkizunerako gaur egungo eztabaida kutsaturik jaio da. Autonomien topa- eta eztabaida-gune bilakatu edo ez, ez da eztabaida filosofiko handiko kon-

tua, borondate politiko kontua baizik; eta hauxe da gehiengoa duten estatu arloko alderdiei falta zaiena, hain zuzen ere.

Autonomi Estatutua onartu zela 15 urte badirela, beraz garatzeko inolako asmorik ez delarik erakutsi, iraina da ganbara autonomikoz mintzatzea.

Horregatik, «Senatura joan, zertara?» galderak, nazionalista baten jarreratik, erantzun bakarra du: Euskal Herriaren libre-determinazio eskubidea aldarrikatzera. Gai-nontzekoak lore-joko eta denbora-galtzeak dira.

Zenbaiti jarrera demagokikoa irudituko zaie nirea, baina Kongresuan eta Senatuan hamalau urte lanean jardun eta gero, ez dut inolako zalantzarik esateko gure eskubideak ezagutzen ez dituen estatu baten jarrera salatzen izan behar duela nazionalistak ahotsak Ganbara horretan.

\*Joseba Azkarraga EAko parlamentari eta senadore ohia da.

Floren Aoiz, Herri Batasunako bozeramailea

# «Sakoneko arazo politikoak ezin dira alderdi politikoaren artean konpondu»

**J**arraiko koordinatzaile izandakoa, Nafarroako Parlamentuan parlamentari eta Herri Batasunako bozeramaile eta Mahai Nazionaleko kide dugu tafallar gazte hau. Floren Aoizek 'filiak' eta 'fobiak' pizten ditu, sekula ez indiferentziarik, bere adierazpen zorrotzak direla medio.

## *GAL afera dela eta, ezer aterako al da garbi?*

GAL Estatu espainolak antolatutako talde terrorista izan zen, eta horren ardura politikoa segurenik zigorrik gabe geratuko da. Bestelako kontua da une honetan zer gerta daitekeen hainbat boterearen arteko liskar horretan. Hor edozer gerta daiteke, gobernuaren erorketa barne. Baina Euskal Herriko ikuspegitik eta GALen biktimen ikuspegitik ez da zigorrik egongo.


**Leben ez bezala, orain mundu guztiak dio: «Jakina zen GAL Gobernuak antolatu zuela».**

Denok galdetzen dugu zergatik ari den gertatzen hori guztia orain. Azken urtetan ezker abertzaleak, eta bereziki Herri Batasunak, salatu zuen hori guztia. Orain zer-

gatik egiten den? Batetik, Garzonen joera pertsonalgatik. Baina elementu garrantzitsuena da Estatu aparatuan dagoen egitura errepresiboan gauzak aldatzeko dagoen borondatea. Eta hor zenbait sektorearen arteko gatazka dago.

GAL afera aprobetxatuz, sektore batzuek PSOEn desgastea bilatzen dute, eta horretarako informazio bila dabilta. Informazio hori soilik Estatu aparatua barrutik lor daiteke. Informazio hori, ordea, bazuten orain hamar urte, baina ez zuten ateratzen. PSOEn gobernuak bota nahian, orain plazaratu egin da.

**Beltzak idatzi berri du ARGIA GALen auzia aprobetxatu behar zuela ETAK borroka armatua gainditzeko borondatea**




«Estatuak nahiko balu, posible izango litzateke negoziaketaren bidea desblokatzea». (Argazkia: Alberto Elozegi).

**agertarazi eta behin-behinekotako tregoarako baldintza errealistak ezartzeko.**

GALen aferarekin argi geratu da Estatuak legezta-

tako indarkeria eta legezkanpokoa erabiltzen dituela. Estatuak biolentzia erabiltzen du, eta ondorioz, Euskal Herria erabiltzera behartzen du. Oraingoz ez





«Borroka instituzionalak asko eskain diezaioke gure proiektuari». (Argazkia: Alberto Elozegi).

du bide hori baztertzeko asmorik azaldu, gerra zikina berriro ere agertu egin baita. Herri hau hainbat borroka mota erabiltzera behartu dute, borroka armatua tarteko. Galdera hau da: duela hamabost urte baino bide demokratiko gehiago al dago Euskal Herrirako benetako demokrazia defenditzeko? Proiektu independentista defenditzeko bide

demokratikorik ez zen egon, eta orainoz ez dago. **Patxi Zabaletak su-etena eskatu du.**

Ez da lehenengo aldia berak eta beste zenbaitek hori eskatzen dutela. Baina une honetan, borondatean eta ekintza mailan Estatuan dago hutsunea. Estatuak nahi izango balu, posible izango litzateke negoziaketaren bidea desblokatzea.

**Impasse egoera hau gainditzeko modurik ikusten al duzu?**

Euskal Herriaren eraikuntza nazionala eta gizartearen aldaketa helburu duen gure proiektutik egoera zaila dela ikusten dugu. Hain zuzen, «Oldartzen» prozesua horregatik sortu da, egoera honi aurre egin eta iraultzeko. HBrentzat eztabaida balio-garria izango da, eta hortik

## HAMARREKOA

### JUAN CRUZ ALLI

«Dinosauruen feudo batean eboluzioa eragin nahi izan du. Ez diote utzi»

### JOSEBA EGIBAR

«Harrokeriaren erakusle eta abertzaleatasunarekin zerikusirik ez duena»

### PATXI ZABALETA

«HBn eta ezker abertzalean dagoen eta egongo den pertsona»

### CARLOS GARAIKOETXEA

«Bere joerak, batzuetan, frustranteak izaten dira»

### ADOLFO ARAIZ

«Nafarroako erreferentzialtasun politikoa ondo beteko du»

### GABRIEL URRALBURU

«Kaleko jendearen beldur, orain ez da etxetik ateratzen ausartzen»

### MILAGROS RUBIO

«Gurekin identifikatu ez, baina gurekiko jarrera baten arabera bat datorren Nafarroako ezkeriar sektore baten isla»

### MAITANE INTXAURRAGA

«Manipulazio ideologikoaren biktima, baina ondo eutsi dio»

### J.A. URBIOLA

«Bere botoak Nafarroako garestienak dira»

### IÑAKI ESNAOLA

«Protagonismoa izan zuen ezker abertzalean, baina jada ez dago bueltarik»



«GALen ardura politikoa zigorrik gabe geratuko da». (Argazkia: Alberto Elozegi).

aterako dira hainbat ideia eta gako egoeraren eboluzioa eragiteko eta bultzatzeko.

**Laster sasi-elkarrizketak eta irtenbide faltsuak etor daitezkeela esan duzue. Zeren beldur zarete?**

Bi bide posible ikusten ditugu. Bata, borondatearen bidea. Alegia, Estatuaren jarrera aldatu eta konponbide politikoaren beharra onartzea, norabide horretan beharrezko urratsak emanaz. Eta bigarrena da gure proiektua suntsitzeko estrategian kokatzea sasi-elkarrizketak edo irtenbide faltsu bat. Zorigaitzez, ez dugu uste lehenengo eszenatoki horretan gaudenik.

Benetako atea ireki behar da, eta horretarako ate faltsuak itxi egin behar dira. Herri honek autodeterminazioaren eta helburu horien inguruko konponbide politikoa behar du. Boron-

daterik ez badago, espektatiba faltsuak sortuko ditugu, eta hori ez da ona. Negozia-ketaz gehiegi hitz egiten denean, negoziaketaren eta helburu politikoaren aurkako bihur daiteke.

**Lehenengo bidea itxita ikusten duzu.**

Bide hori itxita dago Estatuaren aldetik borondaterik ez dagoelako, baina era berean hainbat alderdik jarrera hori txalotzen dutelako. Ezker abertzalearen negoziatzeko borondateaz hitz egiten da, baina gobernuak behin eta berriro negoziazioari ezetza ematen dio.

**Zergatik zarete hain kritiko Elkarri-rekiko?**

Elkarri-k, batzuetan, HBren

oniritzi eta txaloak jaso ditu, eta bestetan kritikak. Elkarri-ren eboluzioaren elementu kritikoak ikusten ditugu, orain txostenean agertu direnak. Badirudi Elkarri-rekin Gesto por la Paz-ekin baino kritikoago garela, eta hori gezurra da. Elkarri-ren aldetik, bakearen inguruan eta hainbat kontzeptu ideologikoren arabera, hustutzea gerta daiteke. Baina hori kritika politiko arruntaren esparruan kokatzen dugu.

**Zer espero duzu Elkarri-k antolaturiko Bake Konferentziatik?**

Handinahiegia iruditzen zaigu une honetan bake konferentzia planteatzea. Gainera, konferentzia hori

**«HBn denok dakigu fase bat amaitu dela eta bestea ireki behar dela, nahiz eta fase berriak nolakoa izan behar duen planteatzen dugunean desadostasunak agertzen diren»**

**«Estatu espainolak biolentzia erabiltzen du, eta ondorioz, Euskal Herria ere erabiltzera behartzen du»**

hainbat alderdi eta agente politikoren arteko elkarrizketa bihurtu da. Hori ez dago gaizki, behin baino gehiagotan defenditu izan dugun gaia da. Gu borondate onez joango gara. Hala ere, ezker abertzalea mugatuta dago, kasik alferrikakoa baita ahaleginetan jardutea beste aldeak urratsik eman nahi ez duenean.

Sakoneko arazo politikoak ezin dira indar politikoaren artean konpondu, ez baikara demokrazian bizi. Ezinbestekoa da ETA eta Estatu espainolaren arteko elkarrizketa. Bitartean, indar politikoek ezin dugu inor engainatu.

**KAS eta HBren arteko barremanak berriro ere guztion abotan dabilta.**

Eguneroko praktikan harreman horiek komunikabideek islatzen dutena baino askozaz ere normalagoak izan dira. Egia da joera ezberdinak eta desadostasunak azaltzen direla, baina hori ona da.

Estatua eta hainbat komunikabide, ordea, ezker abertzalean eta HBn zatiketa eragin nahian dabilta. Sektore bat kriminalizatu egin nahi dute, KAS kasu honetan. Horrek azaltzen du hemen askatasun demokratikoak ez direla errespetatzen. Aukera politiko bat kriminalizatzen dute. Baina ez da KASen edota HBren

aurkako ekimena, ezker abertzalearen eta bere proiektu politikoaren aurkakoa baizik.

**«Oldartzen» prozesuaren ondoren, plazaratu diren jarrera kontraerriak uztartzea lortuko al duzue?**

Halako eztabaida luze eta sakona egitea ez da kalterako izango. Azaltzen diren joerak maiz kontraerriak izan arren, hori ez da txarra. Ezker abertzalea, eta partikularki HB, une garrantzitsuan dago. Denok dakigu fase bat agortu dela eta beste bat ireki behar dela, nahiz eta fase berriak nolakoa izan behar duen planteatzen dugunean desadostasunak agertzen diren. Eztabaidaren ondoren, erabaki batzuk hartuko dira eta ondoren integrazio prozesua emango da, HBn proiektu batek bateratzen baikaitu. Eztabaida baliogarria izango da, barruko homogeneitatea zein aniztasuna indartzeko.

**«Oldartzen» txostenean Nafarroako parlamentarien eta Gipuzkoako biltzarkideen zentsura ikusi du zenbaitek.**

Zentsurarik ez da planteatzen. Hor esaten da gure borroka instituzionalari dagokionez hainbat tokitan eta mailatan oker ibili garela.

T A N T O A

## Belaunaldi baten aurpegi ezagunena

1966ko ekainean jaio zen Floren Aoiz tafallarra. 28 urte baino ez dituen arren, 92. urtetik aurrera Herri Batasunako Mahai Nazionaleko bozeramailea da. Gazterik murgildu zen Floren Aoiz politika munduan, 83. urtean Jarrai erakundearen sartu zenean, alegia. Gazte erakunde honetan egindako urratsei jarraituz ezagutzen dugu Aoiz, nolana ere 80ko hamarkadan politikoki jaioa, hazi eta hezitako ezker abertzalearen belaunaldikoa baita tafallarra, belaunaldi horretako aurpegiarik ezagunena beharbada. Urte haietan Aoizek eta bere orduko lagunek, gaur egun bere lagun min dituenak, Jarrai erakundea indartzea lortu eta

ezker abertzaleak izandako zabalkundearen parte hartu zuten.

Urteak joan urteak etorri, Aoizek erantzunkizun handia hartu du Herri Batasunan, bera baita, Jon Idigoras karismatikoarekin batera, zezena plazan toeratu behar duena, Zornotza-koak zezenketan esperientzia handiagoa badu ere. Oso zorrotza da bere erantzunetan eta, plazagizon ez izan arren, aurrez-aurre bizkorra da, etorri ona du eta ideiak biltzeko eta azaltzeko gaitasun berezia. Jose Maria Calleja kazetariak hauteskunde orokorretan eginiko elkarriketa-itaunketa famatua edo Joseba Egibarrek telebistan izandako eztabaida dira horren



**IÑAKI ALTUNA**  
**«Egin»eko kazetaria**

lekuko. Batek baino gehiagok dioenez, Egibarrek eta Callejak ez dituzte esperientzia haiek gainditu eta horrexegatik ez omen dute oso gogoko Aoiz gaztea.

HBk EAJrekin izandako elkarriketen ondotik, 'gogortzat' dute ezker abertzalearen etsaiek, izatez arras bestelakoa bada ere. Politikoki tinko aritzea du gustoko, nahiz eta behar denean malgu jokatzeko prest egon ohi den.

Borroka instituzionalaren betebeharrean erratu egin gara akaso. Zeregin deslegitimatzaila agertu behar dugu, instituzio horiek zergatik ez diren bidezkoak argudiatuz. Horretan huts egin dugu. Borroka instituzionalak asko eskain diezaioke gure proiektuari, eta orain

arte ez bezala aprobetxatu egin behar dugu.


**Instituzioetako parte-hartzea beti izan da eztabaidagai HBn. Berdin, gutxiago ala jarraipen osoz parte hartu behar da?**

Aukera guztiak zabalik daude. Beti eztabaidagai

izan da HBn instituzioetako parte-hartzea. Mota guztietako iritziak azaldu dira eta bakoitzak berea defendituko du. Herri Batasunak hartuko du erabakia eta ziur erabakirik egokiena hartuko duela.

**MIKEL JAUREGI**

## BESTE PREZIOEKIN EZER IKUSTEKORIK EZ



450 saltegi baino gehiago dituen Estatuako lehen erakunde optikoak bakarrik eskain diezazkizuke betaurreko bildumarik eksklusiboak 2.850 pezetatik aurrera. Eta garrantia guztiekin, jakina.

**ZINKUNEGI OPTIKA**  
ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.

Hernani, 4 - DONOSTIA

## H I R U M U N D U

## ■ UNIONISTEN IKARA GAINDITU BEHARRA

LONDRES-EK eta Dublinek aurkeztu zuten Ipar Irlandaren etorkizunari buruzko eztabaidarako agiria. Berau estatu biak eta Ipar Irlandako alderdi guztien arteko eztabaidarako egina badago ere, hasieran behintzat unionistek arazo franko jarri dituzte eztabaidari berari ekiteko ere. Errepublikarrek, beren aldetik, eta Sinn Feinek batipat, agiria aztertzeke denbora eskatu badute ere, elkarrizketa zabalak hasteko atek zabalik uzten dituztela jakinarazi dute. Agiriaren alde garrantzitsuenek, dena den, Ipar Irlandaren autodeterminazio eskubidea eta Irlanda osoa gobernatzeko erakunde bateratuaren sorrerak, bakea eta Irlandaren batasunerako beste urrats bat ekarri dute.

## ■ BALLADUR DA ORAINDIK LEHENA

EZIN esan lehendakaritzako lasterketan Edouard Balladur oso argi ibili denik: konfiantzak galdu du. Iratzarri orduko, Chiracek eta Jospinek inkestetako zenbait puntu lapurtu dizkiote, eta gainera kanpainen sartzeko moduan ere -legez kanpoko telefono entzuketak eta CIAren auziak- berriro egin du estropozo lehen ministroak. Alabaina, lehendakaritza arriskuan duela ere samurregi eta lasterregi esan da. Orain arte bederen komunikabide nagusienak, telebistak batez ere, bere alde agertu dira, eta horrek asko esan gura du. Egia da indarra galdu duela, baina egia da halaber gora egiteko denbora baduela. Areago oraindik bere aurkariak erakusten duten indar eskasarekin.

## ■ SOMALIAREN INBASIO ALFERRIKAKOA

DUELA bi urte Estatu Batuetako *marine*ak Somaliako hondartzetan lehorretatu zirenean, George Bushek bere lehendakaritzarako agurrik aproposena antolatu zuen. Estatu Batuen eskuzabaltasunak laudorioak ekarri zituen mundu zabaletik. Baina lehenbiziko argazki humanitarioetako etekinak George Bushek eraman zituen, Bill Clintonentzat, oster, *marine* eta kasku urdinen sarraskiak geratu ziren. Somaliako egoerak aurretik ere irtenbide konpongaitza bazuen, EEBBen eta NBERen eskuhartze militarrek nahasketa gehiago ekarri zuen. NBERen bitartekaritza onartua izan behar du, ez inposatua, bestela jai du eta gainera, edozein koloretan pintatu arren, inbasioa bihurtzen da. Alferrikakoa gainera.



Samuel Ruiz, San Cristobal de las Casasko gotzainak Chiapasko jauntxokeriaren ondorioak jasaten ari da Gobernua eta Armadak eginiko erasoaldi honetan. Justizia eta berdintasuna aldarrikatzeagatik, gerrilari zapatisten bultzatzailetzat jotzen dute Elizaren baitan ere oso eztabaidatua izan den pertsona. Alabaina, indigenak bere defentsan agertu dira. Gobernua, bestalde, gotzainaren aurkako erasoen aurrean isilik geratu da berriro.



**Matignon: amets zaharra**

CHARLES PASQUA une gaitzak iragaten ari da baina oraindik borrokarako prest dagoela erakusten du, jakin badakielako Edouard Balladur lehendakaritzara iristen bada lehen ministroa izateko aukera duela. Frantziako barne ministroa gogor agertu da estatubatuarren 'espioitzaren' aurrean, aliantzen gainerik, lehenbizi herritarren segurtasuna zaintzeko dagoela erakutsi gura izan du. Hauteskunde garaia ez zaio oso sinesgarri atera, baina berak bereari eutsi dio. 1986 eta 1988a artean ere barne ministroa izan zen Chiracekin. Bere konfidantzazko gizona zen, baina Pasquak dioen moduan, «nire etsairik okerrena bihar nire laguna izan liteke». Balladurrek errieta egin zion legez kanpoko telefono entzuketak medio, baina badi-rudi bikoteak berriro bere hauteskunde kemena hartu duela. Dena den, hauteslegoa zein Balladur bera ere, kontuz ibili beharko dute Frantziako agintari demagogo, populista, bizi eta trebeenetako honekin, bere esaldi hau esanda koaren adierazgarririk onena: «promesek, horietan sinisten baduzu bakarrik behartzen zaituzte».

**MUNDUA EZ DA BIRIBILA**

**Arma, tiro, pum**

**E**z da lerro hauen asmoa, ez alajaina, gure muskaririk oneneraikoak popularizatu zuen soinu liluragarriez aritzea. Gustatuko litzaidake, aitortu behar, koplaz idaztea, baina idazlan honetan abestiaren hitzak mundu zabalean entzuten diren gerra ezta paper zurian islatzeko atxakitzat hartuko ditut.

Tira, lehenengo hitzari ekin diezaiogun: arma... eta armadak.

Lacandona oihanean, kronikatxo hau idazten dudanean, mexikar soldaduek, boteretsuen aginpean, hortzak erakusten dizkiete hango indiar herritarrei.

'Tx' Txiapas eta 'tx' txanpona. Noizbehinka hizkuntza bere jakinduria guztiarekin azaltzen zaigu. Egia biribila, ze Washingtonek 'erregalatu' dion diru mordoxka (2,6 bilioi pezeta) patrikan izango duela jakin eta berehala Ernesto Zedillo lehendakariak bere tanke eta tropekin Lacandonako inguruetan dauden herrikkak bete baititu.

**DENA** dela, ez dago Lacandonatik oso urrun jaon beharrik indigenen aurkako beste gerra baten berri emateko. Peru eta Ekuadorreko gobernuak Amazonia oihanean beren sarraskia aurrera baitaramate.

Joan den mendeko muga arazoak 'konpontzeko' asmotan bi estatuek tankeak bidali dituzte oihanera. Abestiaren bigarren hitza, hots 'tiro', bere zentzurik gordinenean agertu zaie Amazoniako biztanleei. Zergatik liskarrak orain? Fujimoriren hauteskunde kanpaina patriotismo koloreaz margotzeko? Duran-Ballenen barne arazoak (krisialdi ekonomikoa, alegia) alde batera uzteko? Seguraski arrazoi horietatik at Genepalabai inguruan diren urre meatzeek eta aberastasun naturalek zerikusirik izango dute.



**Maite Ubiria**  
Kazetaria

**'ARMA'** eta 'tiro' hitzen atzetik pum 'hitza' datorkigu. Eta 'pum' soinu zatatsua Kaukasotik heldu da, Txetxeniatik.

Lurralde hartan errusiarren morteroek gupida gabeko erasoaldiak burutu dituzte Grozni hiriburuaren kontra. Zein isiltasun lotsagarria nazioarteko politikariek gorde dutena Txetxenian! Jakina, zibilen hilketak Ieltsinen barne arazoak besterik ez dira. Non daude Nazio Batuetako salaketak? Gorrik ote daude «arma, tiro, pum» ezta dei entzungor egiteko? Bihotzez kantuz aritzea gustatuko litzaiukeenontzat benetan jasanezinak dira. Nik, behintzat, horregatik bete dut horrenbeste preziazten dudana paper zuri hau.

Bartzelonako alkatetzarako hautagaitzak lehertu du krisia

# Ekaitza Esquerran

**K**ataluniako Esquerra Republicanak buruzagitza eta alderdiko sektore desberdinen arteko barne tentsio eta desadostasun garaia bizi du. Azken urteetako hauteskunde arrakastaren ondoren, Kataluniako alderdi independentziazaleak garaipenek ezkutaturako zenbait arazori aurre egin beharrean dago.

KATALUNIAKO Legebiltzarreko hirugarren indar politikoa jasaten ari den krisiaren azken adierazlea, datoren maiatzaren 28rako Bar-

tzelonako hautagaitzaren osaketarekin dator. Arazoak konponduta zirudien. Duela hiru hilabete, Bartzelonako alderdi errepublikarreko

militanteen % 60k Carles Bonet —ikuskitun politikatik urrun dagoen politikaria— hautatu zuen Kataluniako hiribururako alkategai. Federazio horretako militante gehienek, beraz, demokratikoki hautatu zuten bere ustez egokiena zena. Une honetaraino ez dago arazorik. Angel Colom ERCko idazkari nagusiak Bartzelonarako hautagaia Pilar Rahola Espainiako Kongresuko ERCko diputatua izango zela iragarri zuenean okertu zen gauza; askoren

ustez, Pilar Rahola Kataluniako independentismoaren aurpegi atsegina da Madril.

Colomen erabakiak oraindik badirauen barne desadostasunak sortu zituen, eta ez bakarrik Bartzelonako Federazioan. Irekitako zauriak itxi asmoz, Esquerrako idazkari nagusiak Bartzelona mailako ezohizko kongresua iragarri zuen otsailaren 7an, Josep Aila bertako lehendakariak azaldu zuen moduan, Bonet eta Raholaren arteko ika-miken ondorioz «*sortutako egoera berraztertze*ko». Colomek publikoki aitortu du Federazioko azken kongresuaren emaitzak bertan behera geratu direla, eta ez du ezkututzen alkategaitzat Rahola gurago lukeela. Hasiere batean, gainera, Madrilgo Kongresuko ERCko diputatuak Bartzelonako hautagaitzako zerrendaburu ez izatea eskatua zuen, baina geroago argi utzi alderdiaren erabakiaren esku zegoela.

## Demokrazia organikoa

ANGEL Colom eta Pilar Raholak militantziak gehien-geoz erabakitako hautagaia-  
ren aurka egindako triki-



Bartzelonako militanteen % 90ek Bonet aukeratu bazuen ere, Colomek Rahola inposatu gura du.

mailuek alderdi nazionalistaren baitan sortutako ekaitza ez da baretu. Eta ez Esquerrako buruzagi nagusiak eta berarekin erabat daudenek horrela gura ez dutelako. Horrela da, ezhoizko kongresuan Carlos Boneti bere hautagaitza defenditzea debekatu egin diotelako. Kongresuaren gai-ordenak Bonet aipatu ere ez du egiten, Rahola bakarrik aipatzen da. ERCko Bartzelonako Federazioaren politika batzordeak hala erabaki du: zazpi boto alde, hiru aurka eta abstentzio bat. Erabakia justifikatzean zuzendaritzak, «bere ikuspuntua defenditzeko Bonetek komunikabideak behin eta berriro erabiltzen» dituela argudiatu du, «Bartzelonako Federazioak demokratikoki erabakitakoari muzin eginez».

Alabaina, oraindik Bartzelonako alkategai denak ez du amore ematen. Kataluniako komunikabide desberdinei egindako adierazpenetan argi utzi du bere jarrera: «Federazioko politika batzordearen erabakia Bartzelonako militanteen adimenari egindako iraina eta zentzugabekeriaren antologia erraldoia da». Boneten esanetan, Raholak bera ordezkatzeko ezhoizko kongresua antolatu den moduagatik, «ERCn demokrazia organikoa dago».

Colom eta bere jarraitzaileentzat, helburua Bartzelonako Udaletxean zinegotzia izateko gutxieneko % 5a gaintzea besterik ez da. Horretarako, idazkari nagusiaren ustez, egungo alkategaia ordezkatzeko Rahola hautagairik onena da, ezagunagoa delako eta erakarpen maila handiagoa duelako. Colomek egundokoak eta bi egingo ditu asmo hau



Angel Colomek  
Cridako  
bizitasuna  
ekarri zion  
ERCri, baina  
bere  
alderdikide  
askoren ustez,  
baita  
zuzendaritza  
pertsona-  
listegia ere.

lortzeko, nahiz eta horren erruz alderdiko beste buruzagi batzuekin aurrez aurre egon beharko duen.

### **Barreraren kontraerasoa**

BONET-RAHOLA auzia dela eta, Colom eta alderdiko beste buruzagi batzuen arteko desadostasunak berehala azaleratu dira. Kataluniako Legebiltzarreko ER-

Cko bozeramailea den Josep Lluís Carod-Rovirak, edo Jaime Rodrik, erakundearen alde ezkertiarren buruzagiak, alderdiaren baitan gertatzen ari denarekin egonezina agertzen ari dira. Raholak Bonet ordezkaria dezan Colomen jarduna kritikatzeko dute, baina arazoa sakonagoa dela uste dute; alegia, Esquerraren egungo estrategiari, eta buruzagi hauek

personalegia eta ez behar beste demokratikoa den barne funtzionamenduari dagokiola. Alderdian gehiengo ez baina gero eta partaide gehiago duen sektoreak bat egiten du analisi horrekin.

Orain arte, gogorren agertu den buruzagia Heribert Barrera alderdiko lehendakaria bera da, nazionalismo katalanaren eta Esquerra beraren militante historikoa. Kataluniako eta Euskal Herriko zenbait egunkariri egindako adierazpenetan Barrerak honakoa baietsi du zalantza barrik: «Alderdian orain arte independentzia eta nazio

## **Colomek publikoki aitortu du Bartzelonako alkategai moduan, Bonet baino Rahola diputatua gurago duela**

## Norantz doa ERC?

LLEIDAN 1989an egindako 16. Kongresuak bide berria zabaldu zuen alderdi nazionalista historikoarentzat. Alderdiko idazkaritza nagusitik Joan Hortala joatea -egun Bartzelonako Burtsako sindiko eta CDCko kide- eta bere ordezkari Colom sartzeak hausnurtura ekarri zuen ERCren garrantzi sozial eta politikoa gutxiko urtetako prozesu batekin. Lleidako kongresuak gazte ugari eta independentismo kalalaneko agintari kualifikatuen etorrera ekarri zuen. Colomek aitzindutako politika berriak, Crida a la Solidaritat elkartetik zetorrenak, oinarria Kataluniaren independentziaren defentsa tinkoan zuen, eta honek

nazionalismoko sektore nabarmenen bozkarioa eta atxikimendu emozionala eragin zuen, are Jordi Pujolen alderdian ere, CDCn. Estrategia berriaren uztalaster jaso zen eta 1992an ERCk hamahiru diputatu lortu zituen Kataluniako Parlamenturako eta hirugarren indar bihurtu. Hila-bete batzuk lehenago, 1981eko ekainean, alderdiak beste mugarri garrantzitsua jo zuen Terra Lliure erakunde armatuaren autodisoluzioa erdies-tean, bidenabar erakunde-ko eta bere beso politikoko militante eta buruzagi gehienak alderdira ekarriz. 1993tik aurrera epe berria zabaldu zuten, laster publiko egin ziren

barne eztabaidek markatuta alde batetik, eta militante batzuek alderdia utzita. Terra Lliureko buruzagi historikoak, Ipar Katalunian errefuxiatua dagoen Pere Bascomptek ere alderdia utzi zuen, ez baitzegoen ados zuzendaritzak aurrera zeraman preso eta errefuxiatuen bergizareratze politikarekin. Ondoren militanteen bajak etorri dira eta hainbat kritika plazaratu ERCren barne fuzionamenduari-ko, Colomen zeregineki-ko eta nazionalismo konbergenteko alor ezkertiarrekiko elkarte politikarekiko. Josep Luis Carod-Rovirak zauria harrotu zuen esan zuelarik nabarmena dela «alderdian sen-

tsibilitate desberdinak daudela eta, beraz, estilo eta lehentasunak ere ez dira berdinak». Pilar Raholak, kontraerasoan, Carod-Rovira ardurabakotzat jo zuen. Esquerra Republicanako sektore batzuek lehen ere salatu zuten Colom-en «personalitatearekiko mirespena» eta barne-demokrazia gabezia. Joan den urtarrilaren 10eko batzorde eragilearen bileran Colomek amaitutzat jo zuen deklaraziook sortutako 'minikrisia'. Bartzelonako alkategaiari buruzko ika-mikak jarri du, oraindik orain, azken goriunea. Ezpatek jaso gabe diraute eta askok uste dute udan ERCk egingo duen 19. Kongresu Nazionalen gauza asko gerta daitezkeela. Horetako bat, idazkaritza nagusirako Colomek aurkeztuko duen hautagaitzari alternatibak aurkeztea.



**Buruzagi askoren esanetan, Esquerra gehiegi zentratu da independentziaren mezuan eta ezkerreko mezua alde batera utzi du.**

*berreraikuntzaren mezua nagusitu da. Hau ona da, baina gizarteak arazo ze-*

*batzak ere badituela abaztu dugu, konponbide zain dauden arazoak eta inde-*

*pendentzia berbarekin konpontzen ez direnak.*

Barrerak Bonet alkategai

moduan defenditzeaz gain, gogorrek jaurti ditu Colomen kudeaketari buruz: «*Personalistegia da eta ez behar besteko ezkertiarra*». Raholarentzat ere gorde du zer bait: «*Ondo ikusia dago, baina botoa PPri ematen diotenen artean, ez ERCkoen artean*».

### **Ezkerrean joera**

BARRERAREN ustez ere, ERCk gehiago begiratu beharko luke ezkerrealdara. Carod-Rovira edo Rodri moduko buruzagiek bat egiten dute jarrera horrekin. Bira honen aldekoen ustez, alderdi errepublikarrak ez-






ERCK gazte independentista ugari erakarri zituen.

kerrera so egiten duten herri sektoreetara gehiago begiratu beharko luke; beren arazo sozial, ekonomiko edo politikoei erantzun zehatzak eskaintzea, eta Convergenciako esparru kritikoei egindako keinuak alde batera uztea.

Esquerrako kritikoei ez diote uko egiten Pujolen alderdia den Convergenciako sektore kritikoenak eta independentistotik hurbilen daudenekiko elkarlan taktikoari, baina haien ustez, bere burua ezkertiarizat jotzen

duen alderdiak ezin du bere jarduera sektore horiekiko balizko aliantzetan oinarritu. Barrera, Carod-Rovira eta Rodrik, baina baita beste buruzagi batzuek ere, ondo ikusiko lukete Ribok gidatzen duen Iniciativa per Catalunya (IC) edo Kataluniako Alderdi Sozialistako (PSC) sektore kritiko eta katalanzaleekiko hurbilketa.

Gai honen inguruan, Rodrik berak duela egun batzuk Iniciativak eta Esquerrak Senatuan talde bakarara osatzea proposatu zuen.



Bascompte Terra Lliureko historikoak ere, Esquerra utzi du.

Halaber, militantziaren % 10 ordezkatzeko duen Rodrik ez zuen baztertu ERC, Iniciativa eta PSCko sektore kritikoko bilduko dituen erakundea. Ildo beretik, duela gutxi Bilboko egunkari bati egindako adierazpenetan, Barrerak ERCK PSC eta IC moduko alderdiekin bat egin beharko lukeela dio: «Printzipioz behintzat Kataluniako autodeterminazio eskubidea onartzen dute eta ezkertiar gisa agertzen dira». Jarrera hau Colomenetik guztiz bestaldean dago, zeinak ERC

Kataluniako ezkerren *pal de paller* (bilgunea) bihurtu gura duen.

Barreraren ustez, «*asmo hori handiosoegia da, ezkerretik eta ezkerreantzat lan egin behar dugu, hori da egin beharrekoa*». Colomek, hala ere, Esquerran krisirik ez dagoela baiesten du. «*Tradizio demokratikoan oinarritu den alderdi zahar eta anitz bateko sentsibilitate desberdinen*» kontua besterik ez da.

PACO SOTO



## elgar PARISEKO EUSKALDUNEN HILABETEKARIA

Artistak, elkarteak, industrialak, laborariak...  
zure kontzertu, erakusketa, aktibitatez informa gaitzazu  
Beren sustraiak mantentzen dituzten  
3.300 irakurle da Elgar  
Parisen ere euskal kultura eginen da

Zergaitik ez harpidedun egin  
edo

Pariseko lagun euskaldun bat harpidendu?

**HARPIDETZA**

Deitura .....

Izena .....

Helbidea .....

.....

100 libera - urtebete - 10 ale (Elgar-en izenean txekoa)

Pariseko Eskual Etxea. 10, rue Duban 75016 Paris Tel: 07-33-1 42 24 98 87 - Fax: 07-33-1 42 24 03 12

Jose Ignacio Aldekoa, MCCren Kooperatiba Kongresuko lehendakaria

## «Lehiakidea baino gehiago hobetzea da kontua»

M

CC Arrasateko kooperatiba taldeak VI.

Kongresua egin zuen hilaren 23an. Partidetza handitzea eta kongresua lau urtez behin egitea erabaki zen. Jose Maria Aldekoa, Kongresuko lehendakariak, haren berri eman digu.

### Zergatik aldatu da kongresisten kopurua?

Hau seigarren kongresua da eta kongresisten kopuru aldatuta 1994ko uztaileko V. kongresuan erabaki zen. Bost kongresu hauetan, MCC barneko kooperatibek proiektu bateratu hau zein baldintzatan jokatu du gure arautu da. Beraz, aurre-

rantzean definizioetatik jardun operatibora iragan behar dugu. IV. kongresuan, kooperatibak sektoreka biltzea erabaki zen —produktu-merkatua irizpidean oinarrituta, eta ez ordura arteko geografikoan— eta baita taldearen enpresa politika; beraz, hau aurrera eramane behar dugu. Kongresuak talde osoaren enpresa politikaz erabaki dezakeenez, kongresisten kopuru handitzearekin bazkideen ordezkartza hobeto islatuta egotea gura izan da. **Urtero beharrean, kongresua lau urtez behin egiteak izango al du eraginik kooperatiben eta bazkideen kontrol eta partehartzean?**

Ez, eta gainera 1991ra arte ez ziren urtero egiten. Orduantxe erabaki zen urtero egitea, gure arteko joko arauak zehaztu gabe zuzeldako. Lan eratzailer eta araugileak eginda, kongresua urtero egiteak ez du zentzurik: ez legoke aztertzeko gairik eta, gainera, kongresuak balorea galduko luke.



«Bazkideen ordezkartza hobetu gura dugu kongresuan».

Azkenean, garrantzitsuenak da kongresura eramango dena kooperatiba desberdi-

netan ondo aztertuta eta eztabaidatuta izatea. Honek ez du esan gura urtero bilduko

## «Kongresuko kopurua handitu ahala bazkideen ordezkaritza handitzen duzu baina, aldi berean, partehartzea txikitzen»

ez garenik, baina beste modu batean eta batez ere zentzu operatiboan. Bestalde, kongresuaren batzorde iraunkorra hilero biltzen da. **Zein da batzorde bonen osaketa?**


Kongresu arteko garaietan, kudeaketa kongresuan erabakitakoa begirunez egiten den zaintzea da batzordearen ardura. Horrez gain, birtarte horretan izaten diren zeregin operatiboak erabakitzen ditu. 16 pertsonen osatua dago, banaketa taldeak lau ordezkari dauzka, finantz taldeak hiru eta industri taldeak bederatzita.

**Partaideen zabaltzeak, kopuruagatik besterik ez bada, etorkizunean erabakien hartzea gaitzagoa egingo du?**

Arazo logistikoren bat ekarriko digu. Horrez gain, 370etik 600erakoa ez da hazkunde handiegia, komunikazioa eta partehartzeari ez dio gehiegi eragingo. Dena den, kopurua handitu ahala ordezkaritza handitzen duzu, baina parte hartzea txikitu.

**Egun merkatuan bizi dugun lehiarekin, bori gutzia eraginkorra al da?**

Bi oinarritzko osagai daude hor: taldea sektoreka eraberritzearena, bizirauteko ezinbestekoa izan dena, eta kooperatiba gisa jarraitzeko dugun borondatea, hau da, partehartze demokratikoa-



## MCC Korporazioaren V. Kongresua

JOAN den 24ean ospatu da MCC Korporazioaren V. kongresua, gure Komunitate Autonomoko enpresal talde garrantzitsua, enplegu eta aberastasun sorrerarengana bere ekarpenagatik. Aurrekoetan, Taldearen antolakuntza, eta etorkizunean jarraitu beharreko estrategiak kontsideratu baziren, oraingo honetan hurrengo Kongresuetan kooperatiba eta talde-durek izan beharreko errepresentazioaz eztabaidatu da.

MCC Korporazioaren bilakaerak,

alde sozio-ekonomikotik, oso garrantzi handia du gure herriarentzat, ezin bait da ahaztu korporazioak, bere aktibitate industria, banaketa eta finantz arloetan garatzen duten ehun enpresa baino gehiago integratzen dituela, lan zuzeneko 26.600 lanpostu inguru biltzen dituelarik. Industri kooperatiben salmentak, joan den urtean, 0,226 bilioitara heldu ziren, hauetatik 0,079 biloi (guztiaren %35) esportatu zirelarik, eta Banaketa Taldekoak 0,287 bilioitara heltzen dira. Era berean, Finantz Sailak administraturiko aktibo totalak 0,778 bilioitatik gora doaz. MCC multzoaren inbertsio aktibitatea 1994an ia 30.000 milioitara heldu zen.

Aipamen berezia merezi du Korporazioko kooperatibek inguruko egoera aldakorretara egokitzeko egiten duten ahalegina, herrialdeko beste enpresetan bezala hauengan ere gogor eragin duelarik, nola hala, bazkideen portaera ereduizkoak.

Kooperatiba eta taldearen ordezkaritza Kongresuko Osoko Bilkuran, 370 partaideetatik gehienez 650era zabaltzeak, partaidetza handiago bartz gain, zailtasunak suposa ditzake proposamenak onartzerakoan, bestalde orain arteko esperientziaren arabera, Taldearen demokraziak zailtasun gehiagorik gabe gaitzitu behar dituelarik.

KARMELO URDANGARIN  
Ekonomilaria

ren bitartez bazkideak enpresaren jabe izaten jarrai dezatela. Horregatik, eraberritze honetan, lehenbiziko kongresuen zeregina funtsezkoa izan zen kooperatiba izpirituari eusteko. **1994ko emaitzak arrakastatsuek izan dira; zeintzuk dira MCCren hurrengo erronkak?**

Salmentetan % 20 hazi gara eta iaz industri taldean 650 lanpostu sortu genituen eta banaketa taldean 920. Urte ona izan da. 1995a ere oraingoz ondo datorkigu; urtarrean iaz baino % 28 gehiago saldu dugu, eta banaketa taldeaz beste horrenbeste esan liteke. Baina garrantzitsua da gure egi-

teko moduak hobetzen ari garen ala ez, merkataritza-sareak, produktuaren kalitatea eta prestakuntza, bezeroa zaintzea... Hobetzea ez da nahikoa, lehiakidea baino gehiago hobetu behar da. Hor dago gakoa, eta bidea oraindik luzea da.

XABIER LETONA

Sakabanaketak zigor bikoitza ezartzen die euskal preso politikoei eta beren senitartekoei

# DISTANTZIAREN BALIO ERANTSIA

**S**akabanaketa politikak Espainia eta Frantziako estatuetan zabaldu ditu euskal preso politiko gehienak. Distantziaren zigorra beren azalean bizi duten senitartekoei eman digute politika honek sortzen dituen ondorio ekonomiko eta pertsonalen berri.



Rosa Balda, Emiliano Biañaren ama. (Arg.: Garikoitz Garaialde).

EUSKAL preso politikoak guztira 577 badira ere, haue-  
tatik hogeita hamar bakarrik  
daude Euskal Herriko es-  
petxeetan. Gainontzeko  
guztiak Espainia eta Fran-  
tziako estatuetan sakabana-  
tu dituzte, 482 lehenabizi-  
koan eta 65 bigarrenen.  
Duela zortzi urtetik hona,

Espainiako Gobernuak eza-  
rri du, batez ere, sakabana-  
keta politika zorrotza, eta  
ondorioz, berrogeita hama-  
hiru presondegitan banatu-  
rik daude presoak. Haueta-  
ko batzuen senideek 4.000  
kilometro egin behar izaten

dituzte etxeak ikusteko.  
Honek era guztietako eragi-  
nak ditu barruko eta kanpo-  
koen bizitzengan.

Salto del Negrokoa eta  
Tenerifekoa dira Euskal  
Herritik urrunen dauden es-  
petxeak, eta hamasei euskal

presoren senitartekoak iza-  
ten dira haraino joan beha-  
rrean. «Semeak Tenerifen  
daramatzen sei urteetan  
bost aldiz bakarrik ikusi  
ahal izan dut, ez baitut  
baliabide ekonomikorik ge-  
hiagotan joateko», dio Ni-  
kolasa Goikoetxeak, Iñaki  
Bilbaoren amak. Salto del  
Negron dagoen Txomin  
Troitiñoren ama ere antze-  
rako egoeran dago. «Urta-  
rrean egindako azken bi-  
sita, Amnistiaren Aldeko  
Batzordekoek emandako  
diruari esker egin ahal izan  
du alabak, beste inondik ez  
dugulako laguntzarik jaso-  
tzen», esan digu Salvadora  
Arranz-ek. Izan ere, Tenerife  
edo Salto del Negrorako he-  
gazkina dela-eta 50.000 pe-  
zetatik (2.000 libera) gora  
ordaindu behar dituzte bisita  
bakoitzeko. Honetaz gain,  
hoteletako egonaldia, ta-  
xiak eta beste zenbait gastu  
gehitzen zaizkio familiari.  
Hori medio, presoek astero  
dagokien komunikazio-al-  
diak galtzen dituzte, seni-  
deek kopuru hori hilabetean  
edo hilabeteetan behin soi-  
lik ordain baitezakete.

«Garai batean Ongizate-  
koei eskatu gentien diru la-  
guntza», diosku Mari Kar-



Salvadora Arranz eta Mari Biañak Salto del Negro eta Ceutara joan behar dute semea eta anaia ikusteko. (Argazkia: G. Garaialde).

men Jauregik, Iñaki Rikeren emazteak. Lortu zuten bakarra «*Mungiako andre bati urte osorako 10.000 pezeta*» ematea izan zen Algecirasen zegoen senarrari bisitatu ahal izateko. Hainbeste kilometrotan bidaiatzeko, ordea, hori baino gehiago behar dute. Mari Karmenen kasuan, hilabeteroko bisita bakoitzeko 52.000 pezeta ordaintzen ditu, eta bikoitza bi hilabetero Larraitz alabarekin joaten denean. Dena den, «*nik zortea daukat, lagunak ditudanez hotelik ez dudalako ordaindu behar*».

Penintsulatik kanpo dau den beste bi kartzela ere bada. Ceuta eta Melillako espetxeetara joateko garraio arazoak dira bertara hurbildu behar dutenen oztopo

nagusia, distantziak gain. Algeciraseraino egun osoan bidaiatu ondoren, «*gertatu izan zaigu itsasoaren egoeragatik ferrya bertan behera geratu, eta bisita galtzea*». Mari Biaña eta Rosa Baldak, amak, aitortu digute. Emiliano Biaña duela bost urte dago Ceutan eta bi astero joaten zaizkio bisitan. Hauetako bat hilabetean dagokien *vis a vis*-arekin batzen dute. Bisitarako hiruzpalau egun behar izaten dira, eta hoge mila pezetatik gora.

**«Semeak Tenerifen daramatzen sei urteetan bost aldiz bakarrik ikusi ahal izan dut, ez baitut baliabide ekonomikorik gehiagotan joateko»**  
**NIKOLASA GOIKOETXEA**

Bidaia luze hauek eskatzen dituzten egun kopuruek erabat baldintzatzen dute senideen bizitza. Mari Karmen Jauregi, Iñaki Rike lezamarraren emaztearen esanetan, «*lan egunak galtzea arazo handia da niretzat. Vis a vis-ak astegunetan dira eta egun bakarra galtzen badut ere, norbaitek joan behar izaten du nire ordezkian*».

### Harreman bereziak

FAMILI-HARREMAN bereziak sortzen ditu sakabana-

tze politikak. Txomin Troitiñoren bi semeek, Martinek eta Jonek, kartzela ezberdinak bisitatu ezagutu dute aita azken zazpi urteotan. «*Urtez urte eta espetxetik espetxera ibili ditugu haurrak gurekin batera*», diosku Salvadorak. Gauza bera gertatzen zaio Larraitz Rikeri, bi urte besterik ez zituen-eta aita espetxeratu zutenean. Iaz, Saltora egindako lehenbiziko bidaiari, funtzionarioek ez zioten kartzelan sartzen utzi nahi, nortasun agiririk ez zuelako. Mari Karmenek adierazi digun bezala, «*epailearengana joan behar izan nuen, eta honek baimendu zuen bisita. Funtzionarioak oso gogor jokatzeko dute uneoro*».

Txomin Troitiñoren amaren arabera, «*guretzat ere,*



■ Mari Karmen Jauregik senarra du Kanarrietan eta Nikolasa Goikoetxeak semea. (Arg: Garaialde).

*urteak aurrera joan ahala, bidaiak gero eta gogorragoak dira. Nik 74 urte ditut, eta ezin dut bakarrik joan*. Salvadorak, gainera, bi aste-ro Puerto de Santamariara bidaiia egiten du Antton, beste semea, bisitatzeraz.

### Zigor bikoitza

ARRAZOI ekonomikoak di-rela eta espetxe hauetako presoek galtzen dituzten komunikatzeko aukerak are gehiago murrizten dira zigor egoeratan. Edozein aitzakia

nahikoa dute -egunkaria patioan uztea, kasu- bisitarren 40 minutuak 10era murrizteko. Salto del Negroko espetxean, behintzat, horrela jokatzan dutela dio Mari Karmen Jauregik. Bidaiian erabiltzen den denbora eta kostu ekonomikoa horrelakoetan berbera denez, egoera hauek etsipen izugarria sortzen dute senitarteko guztien artean. «*Telefonoz bitz egiten ditugun minutuak ere bisita denboratik kentzen dizkigute, eta*

*bisitekin gertatzen den bezala, dei guztiak grabatzen dituzte, preso sozialekin gertatzen ez dena*».

Distantziak aukera handiagoak ematen dizkie isolamendua areagotzeko. Patioan preso politikoei elkar ikusteko aukerarik ez zaie ematen Salto del Negrora, eta senideek astero joaterik ez dutenez, funtzionarioek egun ezberdinetan ematen dizkiete bisitak, honela presoak elkar ikusteko duten aukera bakarra ere ezabatuz.

### Kostua luzatuz

*NIK galdetzen dut, ea zergatik eraman behar dituzten borren urrun; zigor bikoitza da, bai entzatz eta guretzat. Gainera, iaztik kalean behar lukete bai nire semeak, baita Iñaki Rikek*

*ere*, aldarrikatzen du Nikolasa Goikoetxeak. Izan ere, legeak esaten duen espetxe-zigoraren hiru laurdenak baino gehiago betea dute biek, hamabi urte.

Sakabanaketak dirauen zortzi urte hauetan espetxe ugari ezagutu dituzte senitarteko hauek Ceutara, Tenerifera eta Salto del Negro-ra iritsi aurretik. Hauen arabera, lagunek oporrak baliatzen dituzte presoak bisitatzeko. Bertako jendea ere ezagutu dute dagoeneko. Palman badira zenbait lagun preso politikoen senitarteko ostatu ematen dietenak, Jon Jauregik, Iñaki Rikereren koinatuak azpimarratu digunez. Dena den, azken bi hilabeteotan «*komunikabideen aldetik eraso gogorra jasan dute. Kriminalizazio*

«**Ezin izan nion negarrari eutsi zazpi urteren ostean semea besarkatu ahal izan nuenean; horrelako egoera batetik igarogabe ezin da imajinatu ere egin zer sentitzen den»**

**SALVADORA ARRANZ**

kanpaina zuzendu zaie euskal presoen senideei laguntzeagatik».

Espetxeetako bizi-baldintzen erreibindikazio moduan presoek egiten dituzten mobilizazioek ere senideen jokaera eta sentimenduak baldintzatzen dituzte. Gose grebatan, esaterako, askotan presoek ezin izaten dute bisitara atera, ahuleziagatik, senideen arabera. Beraiei gogorra egiten ei zaie presoak horrela ikustea.

### Batetik bestera

TOKI-ALDAKETAK ohizkoak bihurtu dira sakabanaketaren egungo praktikan. Preso eta senitartekoek furgioietako ordu latz hauei diete beldurrik handiena. Batez ere presoek jasaten duten tratuagatik, baina baita helmuga zein izango den ez dakitelako ere. Egunak egiten dituzte askotan senideek presoak non dauden jakin gabe. Txomin Troitiñoren azkena gogoratzen du amak: «*Jipoia hain izugarria izan zen ezen beraietako batek 'bilda dago' esaten zuela entzun baitzuen Txominek.*».

Rosa Baldak ere azpimarratu du Emilianok zioela lehenengo leku-aldaketak oso gogorak izan zirela, jipoiak ohizkoenak. Izan ere, bere semea Carabanchel, Alcalá-Meco, Herrera eta Puertotik igaro zen Afrikako espetxera iritsi aurretik. Beste senideek ere zerrenda luzeak aipatzen dizkigute euskal presoek, eta beraiek

ere, ezagutu dituzten kartzelak eta hauetara iristeko ibili dituzten bideak izendatzerakoan. «*Legeak dioena eta egiten dutena ezberdina da. Kanean behar luketen 80 preso oraindik barruan daude eta guk bidaian asko arriskatzen jarraitzen dugu*», salatzen du Iñaki Rikeren emazteak. Dena den, bere ustez autoa garraibide bezala dutenek izaten dute arrisku gehien, istripuak behin eta berriro suertatu baitzaizkie. Joan

den astean, esaterako, Senideak-ek bere ardura azaldu zuen egun gutxitan euskal presoen senide eta lagunak izandako zazpi istripuak zirela eta. Ez dira lehenengoak izan eta senideek arrazoiak dituzte azkenak ere ez direla izango pentsatzeko.

### Sentituz baina gogor


ZAILTASUN guztiak gainditu nahian, senideek gogor egon gura izaten dute bisitetan, baina askotan sentimenduek irabazten dute. Salvadorak, ordurarte malakoak beti gorde izan bazituen ere, ezin izan zion negarrari eutsi zazpi urteren ostean lehenengoz semea besarkatu ahal izan zuen horretan. «*Hori bizi izan ez*

*duenak ezin du imajinatu ere egin zer sentitzen den. 'Seme, barkatu', esan nion, 'baina ezin dut gebiago'.*».

Oztopoak oztopo, indarra ematen dien gauza garrantzitsu bat daukate senideek: maite dituztenen animoak. «*Paradoxa dirudi, baina presoek moral kontuan irabazi egiten digute.*» Hori gogoan, Salvadoraren begiak argitu egiten dira maiztean berriz ere Txomin semea ikusiko duela pentsatuz. Iaztik ez baitu bere animoak entzuteko eta besarkatzeko aukerarik izan: «*Beraiek dira gu animatzen gaituztenak, sinesgaitza da beren barne indarra.*».

ARANTXA ERASUN  
AINHARA ZUAZABEITIA

## SAKABANAKETAREN HELMUGA HURRUNENAK




«**Edozein aitzakia nahikoa dute bisitarako ditugun 40 minutuak 10era murrizteko Salto del Negroraino joan ondoren»**

**MARI KARMEN JAUREGI**

Iparraldeko hiru irrastien aitzineratzeko urrats berriak hasiak dira

# EUSKARAZKO UHINEZ IPARRALDEA BUSTITZERA

Irulegiko Irratian, Donibane Garazin, lanpostuak mantentzen ahal dira oraino, urte guztiez antolatua den sustengu kanpaina azkar bati esker. (Arg.: A. Elozegi).



**E**uskarazko irrastietako kudeatzaileak egungo egoera zalantzakorrari aurre egiteko asmotan dira Ipar Euskal Herrian. Xiberoko Botzan berregituraketa moldatuz, Gure Irratian egitasmo berria landuz eta sustengu kanpainan Irulegiko Irratian.

KOMUNIKABIDEETAN euskararen baitezpadako egoera zela pentsaturik eta frantses Estatuak zuen irrastuhinen erabilera eksklusiboa hautsi zuen 1981.eko legea



baliatuz sortu ziren hiru euskal irradi Iparraldean: Xiberoko Botza (Maulen), Gure Irratia (Baionan) eta Irulegiko Irratia (Donibane Garazin).

Bakoitzak bere eskualdean eta inguruko laguntzaileekin neurtu du zein den euskararen eremu egokiena eta ondorioz Gure Irratiaren emankizun guztiak euskaraz egiten dira, %90 Irulegiko Irratian eta %80 Xiberuko Botzan.

13 urteko zerbitzu publikoa bete duten hiru irradi hauek funtsezko behar bati erantzuten diotela frogatzen dute. 1991n Siadecok egin inkesta batean agertu zen Iparraldeko 45.000 jendeak euskal irratia entzuten zizutela. Baina oso zaila da zerbitzu publiko baten betetzea botere publikoaren aldetik arabera laguntza edo diru iturria jaso gabe. Irrati bakoitzak, elkarteak kudeatzen dituzten Frantziako beste irratiek bezala, diru laguntza eskuratzen dute

urtero, 200.000 libera ingurukoa (5 milioi pezeta inguru). Bestalde, Departamenduko Kontseilu Nagusitik etorri den orain arteko laguntza aski murrizta izan da, 40.000 libera gehienik

urte baterako. Ikusiko dugu Bayrou Kontseiluko presidentek hitz eman bezala emendatuko denentz diru iturri hori.

Laguntzaileen emaitzei esker eta hiru euskal irratien kontuak bateratuz bi milioi libera inguruko buxeta bete izan da joan den urtean, hamar bat lanpostu ordainduz, orotarar, hiru egituretan.

Konparatzeko on da ikustea zein den frantses zerbitzu publikoko irratia den Radio France Pays Basque irratia ahala: 24 lanpostu oso eta 15 kolaboratzaile ordaintzen ditu baldintza hobetoetan.

Urte batez egoera txartu da bereziki Gure Irratian eta

Xiberuko Botzan. Langile postuak guttitiu dira lehen eta epe mugatu bateko langabezian sartzerantz borrokatuak izan dira bertzean. Irulegiko Irratian lanpostuak mantentzen ahal dira oraino, urte guztiez antolatua den sustengu kanpaina azkar bati esker; Nafarroa Behereko irratia diru iturrien erdia hainbat entzuleren laguntzatik dator.

### Nola ihardoki oraiko egoera dorpeari?

ZALANTZA gogorak sortarazten dituen horrelako egoeraren aitzinean ez dira deus egin gabe gelditzen euskal irratietako kudeatzaile-

**Bakoitzak bere eskualdean euskararen eremua neurtu dute. Ondorioz, Gure Irratian emankizun guztiak euskaraz egiten dira, %90 Irulegiko Irratian eta %80 Xiberuko Botzan**

## FITXA TEKNIKOA

### GURE IRRATIA

- ✓ Euskaraz % 100
- ✓ Lehen emankizuna 1981eko abenduan Milafrangatik (Lapurdi)
- ✓ 1986an antena Baigura mendian plantatu
- ✓ 1986an estudioa Baionan jarri
- ✓ 1992an frekuentzia berria: 106,6 Mhz
- ✓ 1994an 3,5 lanpostu 5 langileren artean banatuak, eta objetore bat
- ✓ gaur egun 2,25 lanpostu 3 langileren artean


### XIBEROKO BOTZA

- ✓ Euskaraz % 80
- ✓ Lehen emankizuna 1982ko abuztuan Gotañetik (Zuberoa)
- ✓ 1986an estudioa Maulen jarri
- ✓ 1992an frekuentzia berria, 95,5 Mhz, eta beste hiru errepikagailu
- ✓ 1994an 3 langile, objetore bat eta CES bat
- ✓ gaur egun 3 langileak denbora laurdenez ari dira (langabezia partziala)

### IRULEGIKO IRRATIA

- ✓ Euskaraz % 90
- ✓ Lehen emankizuna 1981eko abenduan Irulegitik (Nafarroa Beherea)
- ✓ 1987an antena Jara kaskoan ezarri
- ✓ 1989an estudioa Donibane Garazin jarri
- ✓ 1992an frekuentzia berria, 91,8 Mhz, eta beste 3 errepikagailu
- ✓ 1994an 4 lanpostu 5 langileren artean, objetore bat eta CES bat

## EUSKARAZKO EMANALDIEN ENTZULEAK



Siadecok 91an egin inkesta. Irrati eta telebistako euskarazko emanaldien entzuleak 15 urtez goitikako 200.000 jenderen artean. %68,1ek ez dute euskal emankizunik entzuten. %31,9ek euskal emankizun bat bederen eguneroko entzuten dute.

Arabera hauek ez dira metagarriak, entzule batzuek irradi bat baino gehiago entzuten baitute.



Urte batez egoera txartu da, bereziki Gure Irratian eta Xiberuko Botzan. (Argazkia: Alberto Elozegi).


leak. Dinamika berria sortu nahian berregituraketa mol-datzen ari dira zuberotar

irratikideak. Bestalde, mar-txoko biltzar nagusian bar-natua izanen den projektu

berria lantzen ari dira Gure Irratikoak. Azkenik, Irulegi-ko Irratiko administrazio

kontseilua handitu eta aur-tengo sustegu kanpainen buru-belarri sartuak dira lan-guntzaile guztiak.

Azken hilabete hauetan Iparraldeko beste jende as-ko entzuten da euskal irra-tiez mintzo. Gure eskual-dearen berreuskalduntzeko altxatzen ari den sarearen elementu beharrezkoa dela ikusiz, euskal irratirik gabe gelditzea atzerapauso han-dia dateke abertzale eta eus-kalzale gehienontzat. Euskal kultura arloan ari diren el-karteak biltzen dituen Deiadar taldeak eskakizun argiak plazaratu ditu eus-karazko komunikabideez. Bere 31. artikuluan dio Ipar Euskal Herriko *«euskarazko irratiek zerbitzu publikoa betetzen dutela eta botere publiko frantsesaren buxeta bero segurtatu behar dietela gutienez»*. Euskal Kultur Erakundeak, bere aldetik, diru languntza zuzena bako-i-



## 1991n Siadecok egindako inkestak dioenez, Iparraldeko 45.000 pertsonak entzutzen dituzte euskal irratia. Baina oso zail da

tzari emateko ordez, bere gain hartu du hiru euskal irratietan zabaldua den kultur emankizun baten egitea. Gainera irratiei buruzko ikerketa lan bat egiteko diru zama bat begiratu du bere aurtengo aurrekontuan.


Azkenik, berriki montatua den Garapen Kontseiluko kultur batzordean Europatik diruz laguntzeko euskarazko irradi baten proiektua aipatua izan da.

### Geroari buruz

NAHIKERIA handia agertzen da, beraz, euskal irratien inguruan baina koordinaketa eskasa ere ageri da iniziatiba guzti hauen artean.



Irratia behar da Iparraldea berreuskalduntzeko. (Arg.: Elozegi).



Euskal irratiek beti behar duten funtzioa eta horretarako eskuratu behar duten ahala ondo aztertzeko, az-

ken 13 urte hauetako esperientziak zenbait ohar argi uzten digu. Lehenik Iparraldeko eremu guztia ez dute oraino ukitzen hiru euskal irratiek, bereziki kostea hegoaldeko eremu guztia. Bestalde, ohargarria da arrakasta ona bildua dutela hiru euskal irratiek elkarrekin egiten duten goizeko zazpi t'erdietako berri saioak. Bide horretatik segituz, ez ahal daiteke Iparraldeko informazioa sarea landu eta egokitzen ahal? Hiria eta barnealdeko oreka kontuan hartuz, sektore ekonomiko-sozial ezberdinak hobekiago ukituz. Elkarlana sakonduz animazioa eta kirol sailetan, hiru euskal irratiek orain artean garatu duten jendeekilako hurbiltasuna galdu gabe.

Hori guztia obratzeko diru iturri berriak beharko di-

ra. Horretarako berriki egina izan da hiru irratien arteko federakuntza proposamena. Ez da dudarik hiru euskal irratiek bere eskakizunak eta proiektuak botere publikoari ozenki adierazi behar dizkietela eta euskal kultur arloko militante eta ardura-dun asko prest direla alde horretarat laguntzeko.

Arlo askotan gertatu den bezala, ez dira euskaldunak beren hizkuntzak behar dituen tresna egokien beha egon, baina eraiki dituzte politika gizon eta egituren ardura akuilatuz.

Beste urrats baten egiteko ordua da. Hamahiru urtez borondate onez eta kemen handiz atxikiak izan diren hiru euskal irratietako langile eta laguntzaileei hats berria emateko.


**JOJO BIDART**

# «Antxon Miamira-edo eramanda elkarrizketa saiatzeko plana zegoen»

**E**uskal politikagintzan giltzarria den Xabier Arzalluz Sabin-Etxea den eraikuntza ikusgarrian topatu dugu. Aginte usaina dago EAJreanean. Narcis Serrarekin elkarrizketa oso garrantzizkoa edukitzeko bezperan hartu gaitu. Eta estimatu diogu.

**Autonomi Estatutuak osatzeko asko ez du falta behar. Nora zoazte hamar urtera begira?**

Guk helburuak oso garbi dauzkagu: euskal estatua sortzeko jaio ginen. Azken urteotan Europako estatuak nortasuna galtzen ari direla garbi dago. Hamabost urtera begira, gehienez ere hogeit hamar urtera, estatutuak ez dira estatu izan-



**Alemaniko Konstituzioa euskaldunontzako eredu ikusten du Arzalluzek, aleman guztien ordezkartza bere gain duelako.**

go, beste errealitate bat sortuko da. Euro-optimista naitzela esango duzu, baina hala ikusten dut.

Mugarik ez dago, moneta berria dator denentzat... es-

tatuak badoaz. Galdera da zer geldituko den estatuetatik, gure autonomia noraino doan, eta autonomia osoa daukagunean zertarako beharko dugun estatu bat

bitarteko European egon ahal izateko.

**Dudarik gabe, euro-optimista zara...**


Europa ez bada biltzen, etorkizun oso tristea izango du. Baina hori badator. Eta autodeterminazioa European oso finkatuta dago: herri bat bere bekoki guztiarekin paretaren kontra joka ikusten bada, bere erabakia aurrera ateratzeko lanean, ez dakit zenbat iraungo duen baina irabaziko du.

Gainera Europako Bata-sunean ikusiko dituzu txekarrak, esloveniarrak, kroaziarrena ikusiko da nola konpontzen den, estoniarrek, Malta, Txipre seguru aski, eskoziarrak... orain arteko egitura osoa aldatu beharko da, konstituzio modu bat moldatu beharko da.

**Marko berrian zer egin behar dute abertzaleek?**

Abertzaleok arazo bat daukagu: ea herri honen gehiengoak gure helburuak nahi dituen ala ez. Hegoaldean gaur erreferenduma egingo bagenu, estatua sortzeko, zer aterako litzateke?

Ajuria Eneko Mahaiaren azken bilkuran sortu zen eztabaida: norbait autodeter-



minaziorako urratsak ematen hasiko balitz zer gertatuko litzateke konstituzioaren zortzigarren artikulua-rekin?

Garaikoetxeak esaten zuen autodeterminazioa errealitate bihurtzeko posibilitatea egon behar zuela, eta ez dela ontzat hartzen. Nik esaten nion hori ez zela arazoa, arazoa zela gaur Euskal Herriaren gehiengo horrelako soluzio baten alde aterako litzatekeen ala ez. Ez genuke gehiengo lortuko. Gure lana da herria geureganatzea, aske izatea Espainia edo Frantziarekin egotea

baino hobea dela ikus dezaten.

**Guztiok mintzo zarete autodeterminazioaz. Eta sekula baino elkarren kontrago zaudete.**

Elkarrekiko mesfidantzaz bizi gara. Gure susmoa da ezker abertzalea deitzen den hori zenbateraino den ezker edo anti-sistema, zenbateraino abertzale. Haiek guri autonomista deitzen digute. Niretzat paperean jarrirakoak dira garrantzizkoak. Neuk idatzi nuen manifestu bat -eta alderdiak ontzat hartu zuen- gu zer garen eta nora goazen azalduz. Haiek

independentziaz eta sozialismoaz zer pentsatzen duten ez dakigu, ez daukate idatzia. «Oldartzen-en irakurri dut Euskal Herria ez dela demokratikoki askatuko. Nire galdera da: armekin bai?


**Zer da konpondu beharra dagoenaren funtsa?**

ETAK eta KASEk bere izeneko alternatiba horretan diote pauso bat emateko Hegoaldeko lau probintzietan eman behar dela. Iparralde ez dakit noizko uzten duten, *ad calendas graecas*. Zergatik, beste estatu bat delako?


Nafarroak bide hori hartu zuen Madrilén hala erabaki zelako. Sozialistek, 1976an, pentsatuta zeukaten ez bakarrik Nafarroa, Errioxa ere autonomia batean sartzea, Agiriano zaharrak, Mujikak eta Cosculluelak. Baina

**«Zer egin behar duzu? Ez duzu egingo traturik gobernu batekin pentsatzen duzulako GAL asuntuan sartuta egon direla? Eta bitartean zer? Bizitzak ematen dituen kontraesan eta saltsa guztietan sartuta gaude, beti bezala.»**

**«Gerra galduta ikustean, traizio hitzaren beldurrez etengabe luzatzen denan, beti azaltzen dira bukatzea nahi duten gizonak, konfidenteak eta gutuna sakelean gordetzen duten buruzagiak»**



«Hegoaldean gaur erreferenduma egingo bagenu, estatua sortzeko, zer emaitza aterako litzateke?»



Madrilen militarrek, eskuinak eta abarrek beste konbinazioa egin zuten. Euskadi autonomia sortzen bazen, Nafarroa barne zela, 200 kilometroko muga izango zuen, itsasoa kontatuta, eta halako bideragarritasun itxura hartzen zuen. Hala utzi zuten Nafarroa

kanpo.

HB eta KASEko jende horrek esaten du laurak bat egin arte itxaron behar dela. Ez da gauza berria: irakurri behar zenue Lizarrako Estatutuak porrot egin zuenean Manuel Irujok Agirreri idatzi zion gutuna, Nafarroa kanpo gelditu zenean. Baina

## NORTASUN AGIRIA

Azkoitian jaio zen, 1932ko abuztuan, San Bartolome egunez ● Begoña Loroñorekin ezkondua, hiru seme-alaba ditu ● Apaiz jesuita ohia eta Alemanian ikasia, Madril, Bilbo eta Deustuko unibertsitateetan izan da irakasle, Zuzenbide Politikoan

espezializatua ● EAJren lehendakaria izan zen 1979tik 84ra eta hala da 1986tik gaur arte ● Juan Mari Arzakaren amak erakutsitako moduan sekulako indabak prestatzen omen ditu ● Historia da bere zaletasun bat, karlistadetan aditua da eta Manuel Larramendi miresten du ● Juan Mari Bandresek berataz esana: «Machiavelli Arzalluzen aldean haur kantaria zen»

guk beti bide bera hautatu dugu: gaudenok aurrera segi, besteak ahaztu gabe.

### Noiz elkartzeko?

Bi eredu aipatu izan ditut sarri. Bata Alemaniako Konstituzioa. Errepublikak federalekoek berenari Alemania deitzen diote. Zati bat Eki Alemanian egonik ere, haiek beren gain hartzen zuten Alemaniaren ordezkaritza, aleman diren guztiena. Horren gainean eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz egin zuten Alemaniaren batasuna.

Beste adibidea Suitzako Jurakoa da. Bernako kantonamenduko eskualde bat zen Jura, frantses hiztuna. Eta duela gutxi lortu du kantonamendua osatzea. Oraindik ere beren «Nafarroa» badute, Bernan, baina aurrera segitzea erabaki dute daukatenarekin.

### Trantsizio aurreko urteetatik hasita PSOekin egin duzue apustua. Merezki al zuen bidaiak?

Guk sozialistekin ez daukagu aparteko maitasunik. Baina aukerak mundu honetan ez dira hain erosoak izaten. UCDek ez zuen gurekin ezer jakin nahi. Sozialistekin ohituta geunden, Francoren kontra elkarrekin egonak ginen. Baina gero ibili ziren Madrilen EAJ radikalizatu egingo zela eta gurekin zer eginik ez zegoe-la esanez, beraiek zirela garrantia. Gu ez gintuzten deitu Moncloako Itunetara. Kepa Sodupekin hartu zuen Ajuria-gerra besotik eta eraman. Sozialistek egindako mesprezuez ere hamaika kontu esango nizuke.

Baina politikan hasita, gehiengoak behar dituzu. Alderdia zatitu zenean sozialistengan aurkitu genuen konprentzio pixka bat.

Orain gure beharra daukate, dauzkaten istilu guztiakin, besteren artean katalanek beren boto-emaileen aurrean gu ere bagaudela erakusteko.

Gu oso oreka zailean gaude. Gobernuari ez diogu lagundu nahi ez bada behar bezala portatzen. Baina horiek modu txarrean bota eta PPkoek gehiengo absolutua edukitzea ez dugu nahi. PP gehiengoarekin eta IU PSOeren aurretik, ez dut uste Espainiarentzat ona izango zenik, baina Euskadiarentzat seguru ezetz. Horregatik gabiltza gabiltzan moduan. Felipe Gonzalezek Europako lehendakaritza bakean pasatu nahi du, ongi bukatzeko.


**GALen kontua zertan bukatuko dela uste duzu?**

Zarata asko eta intxaur gutxi. Denok dakigu, gutxi gorabehera, zer gertatu zen. Baina bestelako kontua da frogatzea. Amedo eta Dominguezen lekukotasunak garbi daude, zenbait froga ere bai, baina ez dut uste Vera horretan harrapatuko dutenik. Garzonek dituen froga guztiak aterata dauka.

**Estatuaren diru ezkutuekin egin du topo hor...**

Diru ezkutuak beti egon dira. Jose de Artetxek kontatzen du «Confidentes en Lastaola» pasartearen, nola ipini zizkion Canovas del Castilloy bere laguna zen Bergarako mediku bati, Zumalabe izenekoari, nahi adina urre eta zilar Baionako kontsulatuan, lan bat egiteko. Bigarren gerra karlistaren amaiera aldean zen.

Zumalabek konfidente sarea antolatzen zuen. Eta bitartekariaren bidez —lanagatik 4.000 errealdinduta— karlisten buruei Canovasen



gutun bana bidali zien. Hemenetzi buru karlistetarik batek bitartekaria espetxeratu egin zuen, beste batek fusilatu, eta gainerakoek gutuna gorde egin zuten.

Gerra galduta ikusten

**« Suitsako Jurak ere badu Bernan bere 'Nafarroa', eta aurrera egin dute»**

denean, traizio hitzaren beldurrez etengabe luzatzen denan, beti azaltzen dira bukatzea nahi duten Muñagorri eta Zumalabeak, kobratzen duten konfidenteak eta gutuna sakelean gordetzen duten buruzagiak. Eta hori, dena hondatu aurretik «nahikoa da» esango duen gizon bat ez dagoelako.

**Sozialistek terrorismoari babesa eman dioten konbikzioa badago, zein ondorio ateratzen dira?**

**«Sozialistek, 1976an, pentsatuta zeukaten ez bakarrik Nafarroa, Errioxa ere gurekin autonomia batean sartzea. Baina Euskadi autonomo batek, Nafarroa barne, biderragarritasun itxura zuen.»**



## «Osloko bidea nahi zuen Asuncioneek, mahaian jarri aurretik gauzak konpontzea»

eta saltsa guztietan sartuta gaude, beti bezala.

### *Algerrez geroztik ez zarete negoziatioari oztopoak jartzen ari?*

Hori gezur biribila da. Algerrekoan, bitartekari baten bidez bidali genuen enkargua ea gutako norbait hartuko zuten, gauzak zertan ziren jakiteko. Ez genuen erantzunik jaso. Esnaolak behin baino gehiagotan esan zuen EAJk txanpa aprobetxatu nahi zuela, irudia irabazi, eta abar. Jakin besterik ez genuen nahi: ez zen posible izan. Madrilen bidez jakiten genuen.

Algerrekoak porrot egin zuen ETAk bonbak jarri zituelako. Lehegailuak nork jarri zituen, EAJk? Arakamak zoragarri esaten zien ETako buruei Santo Domingotik: ez duzue kontrolatzen zer datorren eta izutu egin zarete, lehengoan gelditzea erabaki duzue. Algerrekoa pasatuta ere, jarraitu genuen horretan. Prestatuta zegoen beste bat Estatu Batuetan, Antxon Etxebeste Miamiraredo eraman, eta saiatzeko plana zeukaten Benegas, Vera eta horiek. Asuncioneek moztu zuen. «Osloko bidea» esaten zuen Asuncioneek, mahaian jarri baino lehen gauzak konpontzea, ez Algerren bezala, mahaian eseri eta galdetu, «orain zer?». Gu irtenbide negoziatuaren alde geunden, eta gaude.

**PELLO ZUBIRIA**

Arg.: **MARISOL RAMIREZ**

«Algerrekoak porrot egin zuen ETAk bonbak jarri zituelako. Lehegailuak nork jarri zituen, EAJk? Gu irtenbide negoziatuaren alde geunden, eta gaude.»

Frogatzen ez den bitartean ez dago zer eginik. Eta badakizu halako gerra batean egon garela. Errenterian poliziak bandalismoan ibili zireen hartan, hemendik pasatu den goardia zibil teniente-koronel itxurazko batek ezagun bati esan zion: «Kontuz ibili. Koartela leheritzen badute, ez dakit nire jendeak zer egin dezakeen.

Eta nola egin duten ez dut topatuko». Jende hori baretzeko sortu zen GAL.

Zer egin dezakezu zuk? Ez duzu egingo traturik gobernu batekin pentsatzen dizulako GAL asuntuan sartuta egon direla? Eta bitartean zer? Printzipioetan sartuta, inor ez dago behartuta bere burua salatzeri. Bizitzak ematen dituen kontraesan





txistek



arpa jotzen

ARGIA liburutegia

# ARGIAKO TXISTEAK

KIKE AMONARRIZEN ESKUTIK

Azken aleak salgai

# Etsaiari su...

**ETSAIAREN** entziklopediari, edo proiektuari hobeto, su eman arte ez dago bakerik. Mezu honen adierazle gezi askotxo ikusi ditugu batera eta bestera, muturrak mezu pozointsuez blaiturik, etsaiaren bihotza zartzeko prest. Lur argitateak, Eusenor eta Klaudio Harluxeten posizio estrategiko guztiak jo ditu dagoeneko; erantzuna ere halamoduzkoa izan da, eta sua suaren gainean, erabat kiskalita agertzen dira gudate honetako azken orrialdeak. Odolustea noski, halamoduzkoa izan da.

Gerra bere punturik larrienean aurkitzen den honetan, tximistak jotako gau beltzean ilargiaren bila hasia bezain alferrikakoa gerta daiteke irtenbideen premiaz hitzegitea, baina agerian dagoenez, alde batekoek eta beste-koek mende berrirako entziklopedigintzari eta hizkuntz industriari zor

diote bake akordiorik. Lurrena munduko entziklopedia txarrena dela eta Klaidio Harluxeten datu bankuak zentzurik ez duela esateak ez garamatza inora. Eta etxe bate alde eta bestearen aurka jartzeak ere ez. Bakoitzak bere esparruan jaso ditzala euskarak hain beharrezkoak dituen lanabesak, kultur munduaren bidetik lurpeko nahiz ageriko lehergailu guztiak erretiratu ostean. Azkenaldion lehertu dituzten minek nahikoa min eragin baitute.

Baina, nola? Hasteko mahai berean eserita eta Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzaz. Begibistakoa gertatzen baita jokoan dauden proiektuon aurrean. Lakuatik nolabaiteko babes eta ordenamendua antolatu behar dela, beti ere ekinbide pribatuaren garrantzia onartzetik eta zentzu honetan lagungarri gerta daitezkeen neurriak bide-rtzetik gauzatu daitekeena. Lur argi-

taletxeak bere lekua eta zeregina duen moduan, Eusenor eta Klaudio Harluxet Fundazioak berea dute, entziklopedigintzan eta hizkuntz industriaren garapenean. Pieza bakoitzak zer leku beteko duen eta betetzen duen lekutik zer joko eskainiko duen akordio bidez zehazteak gerratea ahaztu eta bandera zuririk gabeko bakealdia ekar dezake.

**Alde batekoek eta beste-koek elkarren aurkako suak ahaztu eta bake akordioa zor diote mende berrirako hizkuntz industriari eta entziklopedigintzari**

Margolarien zaindaria den Angelico beatoaren egunean, otsailaren 18an, urteroko zita honekin nahikoa ez eta elkarrekin lanean hasteko konpromezua hartu zuten GARdeNA elkartean bildu diren Nafarroako 50 bat artistek. Angel Gutierrez Fanlo marrazki irakaslea izango da bertako lehendakaria, eta asmo nagusien artean, ekitaldiak, erakusketak, hitzaldiak, bidaiak eta beste antolatzeko asmoa agertu dute parte hartzaileek. (Argazkia: Leire Arzuaga).



Aurkakoak berriz, proiektu bat ala bestea suntsitzeak, inoiz herri honetan hainbeste malko ekarri dituen konponbiderik gabeko garaipen misera-blea baino ez.

**NAFARROAKO** Unibertsitate Publikoa soka motzetik lotu nahi du Gobernuak eta atzera bota dizkio euskara, finantzaketa eta izenari buruz estatutuetan zehaztutakoak. Bere garaian autonomia osoz jokatzeko aukera onartu bazion ere, kieto! urrunegi joateko tentazioak errotik moztera jo du Alliren taldeak.

Ikasleek bi hizkuntzetan ikasteko duten eskubidea bermatu behar dela dioen puntua aldatu eta, *legeak bi hizkuntza ofizialen irakaskuntzari buruz ezartzen duenaren arabera* zehaztapena erantsi die Gobernuak estatutuei, hots, euskararekiko hain diskriminatzailea gertatzen den legearen neurriera jokatu behar dela gogorarazi dio unibertsitateari, ez saiatzeko neurria malgutzen edota legeak ikusi nahi ez duena begiztatzeko. Hizkuntzaren alorrean NUPEk erakutsi duen abiadura gehiegizkoa zaio dagoen lekutik batera mugitzeko intentziorik ez duen instituzioari.

NUPEk ez du bidali zaizkien aldaketan aurrean erantzunik eman. Ez dute ordea, prozesuan argitu denez, adostutako testurik lortzeko aukera handirik izan, eta Gobernuaren kalizatik edatea unibertsitatearen funtzionamendurako hain funtsezkoak diren etorkizuneko testuotan amore ematea ere baden neurrian, indarrak ondo neurtzen arituko dira. Izan ere, euskararen alorrean piztutako txispa honek su handiagorik eragin dezake.

EHUn bestalde, irakasleen karrera arautzeko proposamena aurrera doa eta Aste Santua baino lehen bide funtzionarialarekin batera kontratuzkoa zehaztuko lukeen behin-betiko testua prest egon daiteke. Azken urteotako hainbat borroka eta eztabaida eragin dituen gaiaren inguruko soluzioari begiak zabalduko ahal dizkio.

**J.J. PETRIKORENA**

S O R T A R A

## Araba, zergatik ez...?


A

**ZE** istilua Arabako Batzar Nagusietako euskararen ponentzia ospetsuak eskatu duen euskararen egoeraren ikerketa oraindik eta ospetsuago dela eta. Denak, uste dut, ulertzen ditudala eta ez ditudala ulertu nahi, edo jendeak zerbait gehiago ere uler dezan nahiko nukeela.

Ez dakit Araban, erabili duten edo dugun bezala erabilia izan delako agian, euskara ez ote den izan liskar sortzaile Euskal Herriaren hezurmamitzaile beharrean, bakoitzak egin beharko du dagokion azterketa. Bakoitzak eta politikoez ere bai. Eta horretarako beharrezko badute soziologo, ikertzaile edo dena delako talderen bati edo gehiagori iritzia eta lana eskatzea eska diezaiotela baita Amando de Miguelenari ere, zergatik ez?

**NERI** beldur gehiago ematen dit, horrelako kasuetan, politikoen beren iritzia garden eta gordina agertzeko kemenik izan ez, izan ere nahi ez, zerbaitegatik izango da, eta horien estalgarri profesionalen babes ustez jakintsuaren bila abiatzeak, edozein dela ere arazoa. Hau, noski, garbi gera bedi, ez da PSE-EE, PP eta UAK eskusiban nozitzen duten gaitza, ez eta ere politikoez eskusiban nozitzen dutena. Pentsa piska bat adiskidea urrutira joan gabe zuk zeuk...

Guztientzat adinaxe ezaguna da netzat Amando, nahiz eta 'Armando' behar lukeen izena, de Miguel. Kasurik hoberenean ere zera esango nuke, ez dela euskara bakarrik berak gorroto duena eta pozik suntsituko lituzkeela munduan gaztelera ez diren hizkuntza guztiak. Ez dakit bera elebakarduna den, baina bai sindrome hori elebar askorena dela. Ondorioz bai eta arabar askorena ere. Beraz ez bai eta ez ez diodan bere profesionaltasunaz aparte bere intentzio makur hori ere erantsiko balio ikerketari arabar dexenteren iritzia jakingo genuke. Ez da gutxi.



**RAMON ETXEZARRETA**

**HALA** ere iritzien mailan eta gai liskartsuetan ikerketa bat beste ikerketa batekin berdintzen da, eta politikariak, bai eta abertzaleak ere, mutu badaezpada ere, Araban behintzat. Arazoa egon, badagoen seinale. Hala ere euskarak dagoen dagoenean jarrai dezake Araban eta Fernando Poon, elkarri beste begi batzuekin begiratu eta beste belarri batzuekin entzuten ez diogun bitartean. Hala ere euskarak jarrai dezake gure arteko lotura izaten. Hala ere ez dugu sinestuko, ez eta de Miguel jaunak berak ere, Araban lanik aurkitu ez duen herritar oro euskaraz ez jakitegatik dela. Hala ere ez dugu sinestuko Arabako abertzaleen gehiengoa bere aldiko ahalegina egiten ari denik euskaraz ikasteko. Eta hala ere, hau da tristeena, gutako gehienak ez dira konturatuko gure artean 'Amando de Miguel euskaltzale' kontu ezin ahala ibili dela antzeko ikerketa egiten.


Handik etorri ginelako gabiltza hemen.

## TXUTXU - MUTXUKA

**MIKEL ERRAZKINEK DISKOA PLAZARATUKO DU APIRILEAN**

SOROTAN Bele taldeko partaideak, osasun gorabeherak direla eta, zuzeneko emanaldiak utzi behar izan ditu, baina konposagile eta ekoizle moduan jarraitu du taldean, eta honez gain, sintetizadoreen munduan oinarriturik bakarkako bere lehen lana grabatu du, «Bostak arte» izeneko, Hirusta zigilu berriaren eskutik. Lau abesti letraz jantzi ditu eta beste guztiak instrumentalak dira. Zazpi musikariren laguntza jaso du: Luis Camino (21 Japonesas taldekoa izana), Ritxi Salaberria eta Urbil Artola (Sorotan Bele), Iker Goenaga, Ane Irazu (Les Mekaniciens) eta Alain Griffinena. Apirilaren lehen egunetan kaleratuko da diskoa.

## NOR - NORI - NOR K

**JOSEBA TAPIA**

eta Leturia Elkarren estudioetan sartu dira beren laugarren diskoa grabatzera. Trikitixaren inguruko hainbat aukera eta proposamen berri lantzeko asmoz datoz oraingoan ere. Bestalde, apirilean helduko dio Oskorri taldeak bere 15. diskoari. Folk doinu alaiak eta sustraiez gaurkotuak moldatu nahi ditu, Elkarren babesean. Bi aukera hauek zeresan eta entzutekorik emango dute aurtengoan ●

**ALEX DE LA IGLESIASI**

euskaraz irakurriko dizkiogu bere azken pelikulako irudi odoltzaleak zertan diren, Koldo Izagirre edo Anjel Lertxundiren zinemari buruzko iritziak eskainiko dizkigu... hau guztia, eta gehiago dakar, zortzi orrialdetan zehar, hiru hilabete behin Donostiako Udaleko Kultur Patronatoaren eskutik kaleratuko den «Zazpiki» aldizkariak. Zinemari euskaraz erreparatzeko aukera duzu begi aurrean ●

**ENRIKE ZELAIAK**

bukatu berri du Nafarroa Behereari eskainitako diskoa. Aurretik, 1977an hasita, beste sei herrialdeetako dantza eta doinurik aipagarrienak bildu ditu urteotan soinu jole altsasuarrak, eta beraz, lan honekin amaiera eman dio, bilketa eta ikerketa saio handi honi. Elkar disketeak plazaratuko du diskoa. Euskal Herriaren kultur tradizioaren testigantza akordeoi doinuetan entzun nahi duenak aukera paregabea du ●

T E I L A K

**EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIAK**

MARTXOAREN 7ean hasi eta apirilaren 5era bitartean luzatuko dira Eibarko XVIII. Antzerki Jardunaldiak. Hamalau antzeztaldek (sei Euskal Herrikoak) parte hartuko dute. Guztira hemezortzi ikuskizun taularatuko dira eta tartean zortzi obraren estreinua ikusteko aukera izango da. Berrikuntzarik ere bada, dantza garaikideari ere lekua egin baitiote aurtengo edizioan.

Nuria Espert eta Rafael Alvarez 'El Brujo'k eskainiko dituzte Jardunaldiotako obra aipagarrienak. Espertek Jose Sanchis Sinisterraren «El cerco de Leningrado» antzeztuko du martxoaren 13 eta 14an, eta 'El Brujo'k «La sombra del Tenorio».

Estreinuei dagokienez, Micomicon madrildarrek Lope de Vega-ren testuetan oinarrituriko «Mudarra» jasoko dute oholtzara, Gardi Hutter Suitzako mimoaren eskutik. Habbe eta Meik mimo alemaniarrek beren azken ikuskizuna zabaltzeko bira prestatu dute eta Eibarren emango diote hasiera. Glorio Muñoz eta Luciano Federicok «Dos tenemos una costumbre por la noche»-ren aurkezpena egingo dute, Guadalajaratik datozen Fuegos Fatuosek «yNOPIA»-rena eta Eibarko Narruzko Zezen taldeak Jose Maria Beneten «Motin de brujas» eta Segi Belbelen «Después de la lluvia» antzeztanena.

Euskarak ere izango du tartarik, eta honela, Ttanttaka, Bederen 1 eta Karrakak beren bi ikuskizunetatik bat euskaraz osatuko dute. Egitarau zabala beraz, Jardunaldiotakoa.

Antxon Ezeizak «Zorionak tovaritx» filmatu du

# «Koherentziaren jarraitzaileak zoriondu nahi ditut filmearekin»

**B**ere azken filmetik, «Ke arteko egunak», sei urte pasatu ditu hainbat proiektu burutu nahian. Mexikon kokatua bata, eta Euskal Herrian bestea; bi luzemetraia zituen buruan, baina biak huts egin eta «Zorionak tovaritx»-i heldu dio azkenez. Honen gainean aritu zaigu eta euskal zinemagintzan egin dituen saioez. Etxean bertan jaso omen ditu kolperik handienak.

«Zorionak tovaritx» filmea ideietan oinarritu duzu. Zein ideietan?

Filme honetan koherentziaren aldeko aldarrikapena egin nahi izan dut, koheren-


tziaren jarraitzaileak zoriondu. Bere bizitza osoan komunista izanik munduko

azken aldaketan ondoren ez zeru ez lur geratzen den aitona bati buruz mintzo da.

Paco Rabal da aktore nagusia. 70 urte, betidanik komunista, erabat bere larritan sartzen den pertsonaia dugü. Elorriaga da bestea, Rabalen semea, modako pertsonaia bera, *broker*-a, espekulatzailea, putase-mea... bata bestearen aurkakoak, beraz. Murtzian filmatu da eta inguruko paisajeak dira nagusi, Miguel Hernandezen poesia entzuten da aitonaren ahotan... Espainiako kultur ikuspegitik abiatuta arazo unibertsala ispiatzten duen filmea da.

### Errealista, beraz?

Filmea ez dago erabat modu errealistan tajutua, ez da komunismoaren erorketari buruzko panfletoa, parabola edo fabula gisakoa du bere baitan. «Ke arteko egunak»-nire azken filmeko tesi nagusi berari erantzuten dio: alda al daiteke ala ez egin duzuna? Kasu honetan, aitona ofizioz zinema-muntatzailea izandakoa da eta, norbaitek gertaerak beste



Aitona komunista baten koherentzia besarkatu du Ezeizak filme honetan.

era batera muntatuz gero, egoera alda dezakeen galdetzen dio bere buruari. Horren inguruko parabola irudikatzen da beraz, aitonak bere ilobarekin –Ruth Gabriel– egiten duen bidaian.

### **Noiz estreinatuko da?**

Une honetan bukatu da lehen muntaia eta apirilaren hasierarako erabat bukatuta edukitzea espero dut. Noiz estreinatuko den ez dakit, baina, Cannesen agian, edo Venecian.

### **Errepide-filmea dela aitatu duzu, bidaia batean oinarritua. Kasik 30 urteotako zure zinemagintza ere Euskal Herriatik kanpora egindako bidaia luzea da.**

Azken denboran hainbat proiektutan aritu naiz. Mexikon «Rojo sangre» deituriko filmea egin nahi nuen, baina husean geratu da. Euskal balezaleen inguruko «El cuaderno de bitácora» filmatzeko hainbat saio ere egin ditut; argirik ez dute ikusi, ordea. «Ke arteko egunak»-en jarraipena izan daiteke berau, pertsonaiak euskaldunak, hemen lekutua, gure kulturaren ispilu... Azkenik «Zorionak tovaritx» sortu dut, besterik atera ez delako, zera, berdin egon nintekeen Mexikon lanean.

«Ke arteko egunak» filmeak gauza askotara itzultzea esan nahi izan zuen: etxera itzultzea, euskarara... Ondoren ordea, Euskal Herrian zineman jardutea oso zaila jarri zen, eta duintasunez jokatu behar dela uste dudanez, Euskal Mediak ahotik sudurre jaten eman zain egon gabe alegia, kanporako bidea hartzea tokatu zait.

**1980an Euskal Herrira itzuli eta «Ikuska»k egiten hasi zinen, euska-**



«Baboarena egin nuen lau urte Euskal Herrian labormetraiak filmatzen; administratziotik jarraitu den politika ikusita, ez dut uste saioak inongo arrastorik utzi duenik».

### **razko zinematografiari basiera eman asmoz. Ez dirudi, azaldu diguzun ikuspegiagatik, asmatu duzunik.**

Garai hartan begibistakoa iruditu zitzaidan gure zinematografiaren zimenduak eraikitzea, eta teknikari eta aktoreak erronka horretara jartzea, hots, Koldo Izagirre edo Iñaki Eizmendi zinema egiten trebatzea, Montxo Armendariz edo Imanol Uribe euskarari begirako jau-

zia ematea, eta hogeita hiru dokumental egin genituen. Proiektua hor zapuztu zen, ordea, instituzioek aurkako bidea aukeratu zutelako. Bere zergak Euskadin ordaintzen zituen oro sartu zituzten zaku berean, ezau-garri kuantitatibo eta administratibo batzuk arautu... eta kito! Ez zen, izpiritu eta forma aldetik kultur errealtate berezitu bati, gureari, erantzun behar zitzaionik planteatu. Hortik etorri da

«Euskal zinematografiaren eredua zehazteko orduan, adibidea jartzen saiatu nintzen «Ke arteko egunak» filmearekin; bidea markatuta utzi nuen eta hori galdu izanak min ematen dit»

kaltea.

Egia da nik planteatu nuen erritmoa hirugarren munduan oinarritua egon zitekeela, oinarri xumeetatik hasi eta pausoka luzemetratetara iristeko, baina orain ikusten dudanez baboarena egin nuen lau urte labormetraiak filmatzen eta saio harek ez dut uste inongo arrastorik utzi duenik.

### **Aurreko porrotaren ondoren iritsi zen «Ke arteko egunak», 1989an. Saio butsala hau ere?**

Aro berri baten hasiera izan zitekeen, eta euskal zinematografiaren eredua zehazteko orduan, adibidea jartzen saiatu nintzen. Husean geratu da baina, eta bedur naiz ez ote den lekukotasunezko filme moduan galduko. Bidea markatuta utzi nuen eta hori galdu izanak min ematen dit. Izan ere, adibideren bat salbu, ordudanik ez da Euskal Herrikozat jo daitekeen benetako filmerik egin.

### **Zein behar luke beraz, euskal erakundeek sustatu beharko luketen zinemagintza?**

«Ke arteko egunak» egiteko Espainiako Kultura Ministeriotik dirua jaso nuen, eta Eusko Jaurlaritzari ere eskatu nion, euskaraz egin behar nuelako. Hori lagundu beharko litzateke, hots, euskal zinematografiari begira eman daitezkeen urrats oro. Nardargarria iruditzen zait, «Zorionak tovaritx» egiteko Murtziara jo beharrean Arrigorriagara joatea, lizentziak ateratzea eta Eusko Jaurlaritzari laguntzak eskatzea. Filme honek nahikoa du Espainiako laguntzarekin.

Hemengo laguntzak, beraz, urrats batzuei begira eman behar dira. Baina ez dira kontuan hartzen, ez



Euskal Mediak  
ahotik sudu-  
rrera jaten  
eman zain egon  
gabe, kanpora  
joatea tokatu  
zaiola esan  
digu.

urrats hauek, ezta hemen jarduten duten zinemagile gazteen kasuak ere. Medem edo Bajo Ulloari ez zaie diririk ematen. Ez dut ulertzen. Eta gero, Paul Le-douch-en «Dolar mambo» filmean dirua xahutzen da. Asko miresten dut zuzendari mexikarra, baina ez dauka ez buru ez belarririk Jaur-larritza egiten ari dena: kanpo-koari eman, hemengoari ukatu eta euskal zinema-gintzari buruzko urratsak alde batera utzi.

**Orain indarrean dauden euskal zuzendari gazte eta ospetsuek ezer egiten al dute zure garaian heldutakoari jarraitzeko?**

Ez dute bokaziorik erakusten, behintzat. Edozein kulturatako zinemagileak senti-

**“Zuzendari gazteak ez dira gero eta urrutiago dugun euskal zinematografiaren alde saiatzen»**

tzen dira, eta edozein diodanean hurbilenekoa duten erreferentzia adierazi nahi dut, kultura espainiarreko zinemagileak. Beraien protesta diruaren ingurukoa da, ez diet ikusten gero eta urrutiago geratzen den euskal zinematografiaren alde saiatzen ari direnik.

**Donostiako Zinemaldia-ekin barreman estua izan duzu. 'Gure' esku egon behar lukeela defenditu duzu beti. Zer nola ikusten duzu egun?**

Bataila hau ere galdu egin dut. Garai batean «Ingeles bat lehendakaritzarako» le-loa atera nuen, Reala entrenatzeko ingeles bat, Donostiako Zinemaldia zuzentzeko belgiarra... politikariak bakarrik ziren euskaldunak! Beti defendatu izan dut, eta hainbestetan errepikatu ezen kale gorrian bukatu baitut, Zinemaldiaren ereduari jarraipena emango zion etxeko egitura egon behar zuela, eta marko iraunkor horretatik une batean kanpoko zuzendaria ekarri behar bazen, ekarri,

baina ez alderantziz, ardura osoa zuzendariarengan jarri, eta kanpokoak gainera! Ia munduko zinemaldi guztiek jokatzen dute honela. Alde-rantziz, izpiritu hau, gurean

ardura handiz zaindu behar-ko litzatekeena, galdu egin da.

**J.J. PETRIKORENA**

<b>VIAJES</b>  <b>BIDAIAK</b>	 <b>OARSO</b> VIAJES · BIDAIAK	
<b>ASTEBURUETAKO ESKIA</b> OSTIRALETIK IGANDERA <b>CANDANCHU 7.800 PTA</b> <b>ASTUN 8.400 PTA</b> <b>BAQUEIRA 11.900tik</b> <b>ANDORRA 10.100tik</b> BARNE: EGOITZA 2 GAU + FORFAIT 2 EGUN	<b>ASTEBURU BEREZIA BUSEAN</b> <b>PIRINEOAK</b> <b>BAQUEIRA 44.900 PTA</b> BARNE: BUSA + EGOITZA 7 GAU 2 IZARRETAKO HOTELEAN + FORFAIT 6 EGUN <b>VALTHORENS 49.900 PTA</b> BARNE: LITERADUN BUSA + EGOITZA 7 GAU + FORFAIT 6 EGUN + TASAK + ASEGURUAU <b>SESTRIERE 39.100 PTA</b> BARNE: LITERADUN AUTOBUSA + EGOITZA 7 GAU + FORFAIT 6 EGUN + TASAK + IZARAK	
<b>EGUNEKO ESKIA</b> IRTEERAK LARUNBAT ETA IGANDE GUZTIETAN <b>GOURETTE 3.800 PTA</b> BARNE: BUS + FORFAIT + GIA	<b>FORFAIT SALMETA</b> <b>ASTUN ETA CANDANCHU</b> <b>2.500 PTA/EGUN</b>	
<b>UNIBERTSITARIOAK ADI!</b> Karneta aurkeztuz gero, 2 egun baino gehiagoko eski bidaietan % 5eko deskontua	<b>BAQUEIRA OFERTA BEREZIA</b> <b>MARTXOAK 4-5</b> <b>ASTEBURUA</b> <b>13.900 PTA</b> BARNE: BUS + EGOITZA PENTSIO ERDIA + FORFAIT 2 EGUN	
<b>TEP BIDAIAK</b> San Marcial 1 Tlf. 420071 Donostia	<b>OARSO BIDAIAK</b> Segundo Izpizua 6 Tlf. 529984 Errenteria	<b>TEP BIDAIAK</b> Urbieta 58 Telf. 460688 Donostia

Martxoaren 5ean abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa

# Usain gaztea eta irudi heldua dakartza txapelketak

**N**afarroa Behereko Alduden hasi, Donezteben jarraitu, Barañainen sailkatu eta Leitzan erabakiko da txapelketa. Hamasei bertsolari, erdiak gazteak, eta bertsogintza gorantz.

NAFARROAKO 24. Bertsolari Txapelketan hamasei bertsolarik parte hartuko dute Alduden (Nafarroa Beherea) eta Donezteben (Nafarroa Garaia) izango diren bi kanporaketetan. Lehenengoa martxoaren 5ean eta bigarrena martxoaren 12an egingo dira. Finalaurrea, berriz, Barañainen lehiatuko da martxoaren 19an. Baina bertsolari hauen



Estitxu eta Bittor, txapeletik hurbileneoak. (A: Leire Arzuaga).

azken helburua apirilaren 2an Leitzako Amazabal pilotalekuan egingo den finalean txapeletik ahalik eta hurbilen egotea da.

Aurten ere gazte eta helduen arteko lehia izango da txapelketa berotuko duena. Nafarroako hiru txapelen jabe den Manolo Arozenak,

adibidez, kritikatzan du gazteek azaltzen duten irabazteko presa. Aitortzen duenez, nahiago du bere laugarren txapela jasotzea bere alaba Estitxu lehenengo aldiz Nafarroako txapelduna izatea baino.

Parte hartzen duten gaintzeko bertsolari gazteei ere lasaitasuna eskatzen die Manolok Arozenak: «Nafarroan urtero egiten da txapelketa eta ez diote garrantzi handirik eman behar».

## Gazteak eta kritikak

AZKENEKO txapelketan, Iñigo Olaetxea gazteak epaimahaiaren emaitzak kritikatu zituen bertso baten bidez, helduen alde jokatu zuela adieraziz. Honen harrarian, Mikel Bujanda epaimahaiko kideak erran du gazteek ez dutela helduen lana merezi duen neurrian baloratzen.

Garbi dago ezin dela ukatu Nafarroako aurtengo txapela gazte batek lor dezakeela. Hamasei bertsolarietatik zazpi dira hogei urte



inguru dituztenak eta hor dago Bittor Elizagoien ere, hogeita hamabi urte dituela iazko txapelketa izan zela-rik.

## Sailkatze sistema

TXAPELKETAREN sailkatze sistema aurreko urtean lehenengo aldiz erabili zen berbera da: kanporaketa bakoitzetik puntuazio altuenak lortzen dituzten bi bertsolariak zuzenean joango dira finalera. Azken biak berriz, txapelketa utzi beharrean izango dira. Bi kanporaketetatik hirugarren eta seigarren postuen artean gelditutakoek, hauek barne, finalurrean elkar ikusiko dute. Horrela, *finalurreko saioari kalitatea ematen zaio, finalaren parekoa*, adierazi du Lontxo Aburu-zak, Nafarroako Bertsolari Elkarte kidea. Azkenik, saio honetan lehen lau pos-



Iazko sailkatze sistema bera erabiliko da, txapelketari kalitatea eta interesa gehitzen dizkiolakoan.

tuak eskuratzen dituztenak finalean lehiatuko dira kanporaketetan zuzeneko txar-

tela lortzen dutenekin.

Bittor Elizagoien ustez sistema honek urrats altua

erakarri du Nafarroako txapelketan. Bere hitzetan, kanporaketetan aurrera egin nahi duenak ezin du hanka sartzerik izan, bestela *«arris-ku ederra dauka bertan gelditzeko»*.

Bestalde, jakina da hemenortzi urte eduki behar direla txapelketan lehiatzeko. Iaz baldintza honegatik kanpoan geratu beharrean izan zen Xabier Legarreta bat dator arau honekin, baina, *«nire ustez bertsolari batzuei besteei baino lehenago iristen zaie maila»*.


1995eko txapelketa honetan bi bertsolari ezik beste guztiak iaz saiatu ziren txapela eskuratzen. Aipaturiko Xabier Legarreta, aranoarra, eta Joxe Manuel Leitza, hau arbizuarra, dira aurtengo izen eta aurpegi berriak. Azken bi hauek, Urko Atxotegi, Bordelen egiten ari den ikasketek galerazita ez da azalduko, eta Txomin Ezpondaren hutsuneak beteko dituzte.

## Heldutasunera

BI aurpegi berri ditu Txapelketak: Jose Manuel Leitza eta Xabier Legarreta. Han hemenka bertsolari berriak sortzen direla azaltzen du honek, eta bertso eskolen mugimendua heldutasunera iritsi dela. Bortzirin hasitako lanak jarraipena izan du, Goizueta eta Sakanan.

Saioen, antolaketaren eta partaideen kalitateari dagokionez berriz, txapelketa heldutasun bat lortu du. Ez horrela partaideen adinari begira, gero eta bertsolari gazte gehiago baitabil. Orain hauen lana da beren bertsogintzaren heldutasuna plazaratzea.

Gazteek, beraien alde



**Manu Gomez**

*Nafarroako Bertsolari  
Elkarteko kidea*


freskotasuna eta bertso eskoletako lana izan arren, helduen esperientzia eta entzuleen helduenganako begirunea izango dute aurka. Izan ere, urte haue-

tan egindako bertso afari, udako saio eta abarretan helduak beren entzulegoa osatu dute. Gazteek berriz, ardura handiegirik ez dute hartu, edo asmatu ez, eta ondorioz entzulego gazte nabarmenik ez da somatzen saioetan. Hiru urtetan bertsolari erdiak gazteak izatera pasa den txapelketak ohizko entzuleak erakartzen jarraitzen du. Eta txapelketetako moldeak bertso eskoletan trebaturiko gazteen aldekoak badira ere, ezberdina da plazarik-plaza aritzea. Gazteek gizartearekiko lotura txapelketatik at bilatzen ahalegin berezia egin behar dute.

## TXAPELKETAKO AURPEGI BERRIAK



**JOXE FERMIN ARGINARENA**  
Joan den urteko txapelketan parte hartu ez bazuen ere, aurten ez da arerio erraza izango. Ez da ahaztu behar Errazkinen jaio zen bertsolaria 1986ko txapelduna izan zela. Hala ere, gogor saiatu beharko du Doneztebeko kanporaketan lehenengo bi postuetan sailkatzeko, Bittor Elizagoien (iazko txapelduna) eta Estitxu Arozena (iazko txapeldunordea) ondoan izango baititu.



**JOXE MANUEL LEITZA**  
Bertso paperetan sari garrantzitsuak jaso ondoren, aurtengoa da bertsolari honen estreinaldia txapelketan. Euskal Filologiako ikasketak egin ditu Gasteizen, eta Sakanako bertso eskolan trebatu da. Bertso eskola hau ere, Goizuetakoa bezala, txapelketatik kanpora aritu da orain artean. Bat-batekoan eta okasio berezi honetan azal dezakeen maila ezagutzeko jakinmina dago.



**XABIER LEGARRETA**  
Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehenengo aldiz kantatuko du bertsolari gazte honek. Txapelketan ez ohizkoa den Goizuetako bertso eskolatik irten du. Gaur egun, bertso eskola honen ardura izateaz gain, igeltsari egiten du lan. Xalto sarian paper ona egin ondoren, bat-bateko saioretan konstante hartu beharreko arerioa bihurtu dela azpimarratu digute.

Legarreta eta Leitzaeren lehiakideek ez dute uste hauen esperientzia falta oztopoa izango denik hauen-gandik sorpresaren bat sortarazteko. Sakanako bertso eskolan irakasle den Joxema Leitza ez da agertzen oso urduri: «*Nik uste dut belduek ere trago txarrak pasatzen*

*dituztela, agian gureak baino okerragoak*». Beste aldetik, Xabier Legarreta, Goizuetako bertso eskolan irakasle dena, ez doa txapelketara helburu finko batekin: «*Abal dudan ondoen kantatzera noa, irabazteko beste aukerak etorriko baitira*».

Mugaz goitiko kontuekin jarraituz, berriz, Lontxo Aburuza ez da baikor azaltzen: «*Iparraldeko bertsolaritza azken urte hauetan impasse batean dago*». Geldialdi honen arrazoiak eskualde honetako euskararen erabilpenean ikusten ditu, batez ere komunikabide

euskaldunak Nafarroa garaiakoak baino gutxiago direlako. «*Gainera bertako bertsolariek ez dute bango kulturaren tokia aurkitzen*». Beraz, bere ustez, Iparraldeko bertsolariek militantzia handia behar dute, jakinik Nafarroako Bertsolari Txapelketara dozena erdi bat saio bakarrik eman ondoren iristen direla.

## Txapelketa herriratzea

«*BAT-BATEKO bertsolaritza euskaldun-berriei edo euskara ikasten ari direnei burbiltzea da txapelketaren helburua*». Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak dioenez.

Horretarako hiru hitzaldi antolatu dira, hizlariak Andoni Egaña eta Xabier Amuriza izango direla. Bestalde, erraztasuna eman zaie ikasleei saioretara joateko, sarrerak erdi prezioan baituzte. Honetaz gain, dozena bat pertsona, Nafarroako zona gutzietakoak, ari dira bertsoetan erabiliko diren gaiak prestatzen. Hau guztia, txapelketa ahal den zabalena izan dadin antolatu da. Martxoaren 5etik aurrera ikusiko dira emaitzak.

**IMANOL GARCIA  
GUILLERMO GURRUTXAGA**


*Euskal Herria, 60. hamarkada. Pertsonaiak: liburu argitaratzailea, zentsorea...*

# emon *bizar* yako

*INIGO ARANBARRI*ren nobela, **SUSA** literatur argitaletxeak plazaratu berria

«Balizko erroten erresuma» jaialdia egingo da Urruñan apirilean

# Kulturaren bizi nahia ikuskitzen bihurturik



Honakoa  
aurkezpen  
txarteleko  
irudia duzue.  
Herri baten  
irudi bizia  
agertzen da, eta  
herri honek  
bere baitan  
gordetzen duen  
kulturaren  
mamiari  
erreparatu dio  
jaialdiak.

**U**rruña (Lapurdi) herrian apirilean egingo den jaialdiak arriskuan dagokeen euskal kulturaren aberastasuna agerian utzi nahi du. Antolakuntzan dabilen herritarrek musika eta dantza taldeen haritik osatu duten egitarau zabalaren berri eman digute.

DATORREN apirilean Urruñan egingo den jaialdiaren prestakuntza lanak aurrera doaz. Baina parte hartuko duten taldeen zerrenda ia osaturik badago ere, oraindik hainbat eta hainbat xehetasun berrikustekoak dira. Argitzapena, eskainiko

Argazkian agertzen den Eltzegorrekin batera, Txanbelak, Zaratak, Baigorriko gaiteroek eta hainbat taldek ikuskizun anitza eskainiko dute.



diren aktuazio ezberdinen koordinaketa, eta beste hainbat eta hainbat punturen inguruan zalantzarik badago. Berttoli kultur etxean biltzen diren antola-

kuntza taldeko partaideek badaukate oraindik buruko-mina sortzeko adina arazo konpondu gabe, baina lan erraldoi honen fruituak ahaleginen parekoak

badira ikuskizun bikaina gozatuko dute bertaratuko diren guztiek.

Antolakuntza lanetan diharduen Joxe Mari Ostolazak eman dizkigu jaialdi ho-

nen inguruko azalpenak. Berak dioenez, «zibilizazio baten erresistentzia» da azken batean ekitaldi honen bidez agerian utzi nahi den ideia. Koldo Izagirre euskal idazlearen «Balizko errotan erresuma» olerki bildumak adierazten du ezin hobekiago jaialdiaren filosofia, Ostolazak azaldu digunez. Euskal kulturaren bizi nahia aldarrikatu nahi du ekitaldi honek. Urruñak, Ipar Euskal Herri osoak legez, euskararen galera prozesu latza nozitu du bere baitan. Euskaldunek orain dela zenbait urte gehiengo zabala osatzen zuten herri lapurtar honetan gaur egun biztanleen erdia baizik ez da euskaraz egiteko gauza. Baina bertako euskaltzaleek ez dute etsi nahi eta jaialdi hau dugu borondate sendo honen adierazpen garbia.

Euskal kulturaren aniztasuna agerian utziko da bi orduz iraunen duen jaialdian zehar. Erritmo berriak

## Ikastola berria Urruñan

URRUÑAKO euskal kulturaren bizi nahia agerian utzi nahi du apirilko jaialdiak. Borondate honen adierazle nabarmena dugu ikastolaren sorrera. Izan ere, irailean jarri beharko luke martxan Urruñako ikastolak. Orain arte Donibane Lohizunera edo Hendaiara joan behar zuten haur urruñarrek herriaren gelditzeko aukera izango dute, ikastolak lokala aurkitzen badu bederen. «Oraindik proiektua da. Gero ageriko da», dio Gerard Urrutia ikastola berriaren lehendakariak.

Berak kontatu digunez,

1994ko ekainaren 16an sortu zen ofizialki Urruñako Ikastola Taldea. Harrezkerotik, hainbat eta hainbat joan-etorri egin dituzte talde honetako partaideek premiazko dirulaguntzen eske. Poulou Urruñako auzapezarekin hitz egin dute, besteak beste, baina oraindik ez dute harengandik erantzunik jaso. Frantses eskoletako zuzendariekin ere elkarriketatu dira, «eta ez ziren batere kontra», Urrutiak azaltzen digunez.

Urterako aurrekontu aurrikuspina egin behar

izan dute Urruñako Ikastola Taldeko kideek Udaltxean aurkezteko: «Herriko bogoita zazpi kontseilariari igorria diegu proiektu osoa bi bizkuntzetan, galdetuz gutaz ere pentsatzeko aurrekontua bozkatuko dutelarik... beha gaude».

Gauzak ongi ateratzen badira, irailean ama ikastola izango da Urruñan. Herri lapurtar honen bilakaerak erakusten du bertan egingo den jaialdiaren filosofia: euskal kulturak bizi nahi du Urruñan. Nork ote du zalantzarik horretaz?



■ Hendaiaiko azken baserria, galtzen ari denaren irudi. (Elosegi).

musika tradizionalarekin batera izango dira, ikusleen gozamenerako. Txanbela, Eltzegor, Zarata, Baigorriko gaiteroak, Lapurdiko dantzariak eta Eguarritako Korala entzun eta ikusteko parada izango du egun horretan Urruña aldera hurbilduko denak.

### Ikuskari anitza

BAINA musika ez da izango elementu bakarra. Bertsolaritzari ere tartea eskainiko zaio, Hendaiaiko Bertso Eskolaren bidez. Antzezlan labor bat ere erantsi behar zaio zerrendari. Azkenik, Joset Oxandabarratzek Urruña eta inguruetan zehar bidaiatzeko aukera emango die ikusleei diapositiba proiektzioari esker. Bertaratu direnek ez dute asperetzeko paradarik izango.

Jaialdi honen antolatzaileetarikoa dugu Xabier Lekuona. Xabierren bizitzak ikuskizun honen filosofia ispilatzen du. Orain dela lau urte, Hendaiaiko Legarraldea baserria hartu zuen eta gaur egun herri honetako azken baserritar gaztea dugu. Baserriaren jabea ez den arren, bera da etxe honi bizitza ematen diona. 160 ardik ematen duten esnearen salmentaz bizi da batipat. Egun, Urruñako lankide batekin batera, ardi gazta ere ekoiztu nahi du.

Xabier Lekuonaren kasuak, baserria zutabetzat duen kultura baten erresistentzia islatzen du, argi eta garbi. Hau baino bizi nahi aldarrikapen handiagorik egin al liteke?

**JOXE JOAKIN DEL CURA**

# La Casa del Café

— Juan Iriondo S.A. —  
DONOSTIA

MARTXOAK

3

ostirala

## MUTILDANTZEN IKASTAROA LAZKAON

IKERFOLK Elkartek eta Gipuzkoako Foru Diputazioak Baztango Mutildantzen ikastaroa antolatu dute **Lazkaoko polikiroldegian**, martxoaren 3an (19.30etatik 21.30etara), 4an (17.00etatik 19.00etara) eta 5ean (11.00etatik 13.00etara). Ikastaroa 15 urtetik gorako edonorentzat zabalik dago, ez da bost xentimo ordaindu behar, erabat dohainik da, eta Mutildantzak edonork ikasteko moduko pieza politak eta errazak direnez, gogoia izanez gero, animo eta aurrera!

## Alberto Franzesena: «Iaz asko jaitsi ziren emanaldiak, aurten gehiago, eta datorren urtean?»


**ARGIA.** *Korrika kulturaleran parte hartuko du Trabukok. Zer ekar dezke egitasmo honek kultura mundura?*

**ALBERTO FRANZESENA.** Beti parte hartu izan dugu egitasmo hauetan, Korrika dela, Ibilaldia, Kilometroak... merezi duela uste dut, eta euskararen alde ahal den moduan zerbait egin behar dela. Hori azpimarratzen da Korrikarekin.

**A.** *Egan utzi eta talde berria osatu duzue. Zer bideri jarraitu behar diozue?*

**A.F.** Eganen egiten genuen musikarekin jarraituko dugu, zerbait berri bai baina aldaketa handirik gabe.

**A.** *Zer nolako egoera bizi duzue plazaz-plaza zabilatzaten*



*erromeria taldeek. Hainbat alorretan krisia aipatzen da, zuenean ere bai?*

**A.F.** Garai batean, urte osoan, ostiralez, larunbatez eta igandez aritzen ginen. Hori dena galdu da eta larunbateko gaupasa baino ez da gertzen. Lehenengo urtean saioak asko jaitsi zirela antzeman genuen, aurten gehiago, eta oso kezkatuta gabilta datorren urtean gerta daitekeenarekin. Egoera ez da beraz, lasaia.

MARTXOAK

4

larunbata

## MUSIKA ETA BERTSOAK KORRIKAREKIN

KORRIKA Kulturalaren barne, hainbat musika diferente bilduko dituen kontzertua taularatuko da Dimako frontoian, **martxoaren 4an, Maixa, Itziar eta Garbiñe, Sorotan Bele eta Lin Ton Taunen** eskutik. 23.00etan. **Egun berean, Goizuetako frontoian Trabuko** erromeria taldeak joko du, 24.00etatik aurrera. **Martxoaren 10ean**, bertso afaria egingo da **Lesakako Koxkonte sagardotegian. Anjel Mari Peña-garikano, Xabier Amuriza, Estitxu Arozena eta Unai Iturriagak** beren upeleko bertso onenak emango dituzte probatzeko.

## RAFAEL MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA

BILBOKO Udaleko Kultura eta Turismo sailak Rafael Mikoleta eskolarteko ipuin lehiaketaren zarpigarren edizioan parte hartzeko baldintzak kaleratu ditu: **Bilbon erroldatutako OHO, BBB eta UBiko ikasleei zabaldua**, hiru maila hauetan jokatu da lehiaketa, lanak euskaraz idatziak behar dute izan, gai aldetik libreak, marrazkiaz osatuak, eta bi eta lau folio bitarteko luzerakoak. **Martxoaren 30era bitarte jasoko dira ipuinak** eta sariak apirilean emango dira ezagutzera.

MARTXOAK

8

asteazkena

## MUSIKAREN INGURUAN JARDUNALDIAK

DEUSTUKO Unibertsitateko Gaurgiro ikasle elkarteak musikaren inguruko bigarren jardunaldiak zabaldu ditu lau astetan zehar. Martxoaren 8an, Yakue Pascual soziologoak «Rock munduko jarrera berrien bilakaera» gaiaren inguruan jardungo du. **Martxoaren 9an berriz, Alex Ramos, Roberto Casas, Carpe Diem, Los Montarno, Bullysonb Blues Band, Los Nabos eta The Trunkmakers** taldeek kontzertua eskainiko dute.

MARTXOAK

10

ostirala


## AUTOIKASKETA ZERTAN DEN

TANDEM Fundazioak autoikasketak (ordenadore bidezko programetan oinarriturikoa) euskararen irakaskuntzan izan duen sarbideaz eta

euskaltegien arteko esperientziak trukazten hasteko asmoz ikastaro bati heldu dio, martxoaren 10 (arratsaldeko 5etatik 8ak arte) eta 11n (goizeko 10etatik ordubatak arte). Donostiako Euskararen Udal Patronatoan emango da, eta bertan, Pello Esnal (HABE), Joseba Ezeiza (Legazpi-6), Ane Fernandez (Irale-ko irakasle ohia), Arantxa Alkorta eta Jürgen Wolff (Tandem Fundazioa) izango dira hizlariak.

## ■ ARTISTA PLASTIKO GAZTEEN LEHIAKETA

GIPUZKOAKO Foru Aldundiak eta Kutxa Fundazioak Artista Berrien 36. lehiaketa plazaratu dute. Eskultura, pintura, grabatu eta gainerako jeneroak zaku berean sartu dituzte lehiatzeko orduan, **18-30 urte bitarteko artista gipuzkoarrentzat zabalik dago deialdia** eta lanak maiatzaren 15a baino lehen bidali behar dira. Aurkezten diren lan guztien artean hainbat hautatuko ditu epaimahaiak, eta horiekin katalogoa osatuko da eta erakusketa nagusia egin Koldo Mitxelena Kulturunean, irailaren 19tik aurrera. Egun horretan bertan, aukeratuen artean sarituak izan direnen berri emango da.



**LEITZAKO I. Laburmetraia Lehiaketa** antolatu du Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolako talde batek. Profesionalak ez diren zaletuen lanak jendaurrean erakustea eta alor honetan hain herren dabilen euskarari zabalkundea ematea dutela buruan adierazi dute antolatzaileek. Beraz, euskarazko laburmetriak behar dute izan, iraupenez zortzitik hamabi minutukoak, VSH formatokoak, eta bidaltzeko epea maiatzaren 19an amaituko da. Bideoak Leitzako (Nafarroa) zinema aretoan proiektatuko dira, maiatzaren 27an, arratsean; eta lan asko aurkeztuko balira, goiz eta arratsez. Zinema munduko talde batek osatuko du epaimahaia. Irabazleak 50.000 pezeta (2.000 libera) jasoko ditu.



10 KM - OIARTZUN  
Tel.: 943-49 10 68 / 49 20 68



27 KM - ARITZETA  
Tel.: 943 - 36 22 60



100 KM - AMOREBIETA  
Tel.: 94-630 87 39



55 KM - ITZIAR  
Tel.: 943-19 93 94

## L I B U R U A K

**POESIAREN  
MAGALEAN**MIRARI GARCIA DE  
CORTAZAR

BERMINGHAM 50 or.

Euskal Herrian antolatu diren literatur lehiaketan inguruan egile gazteek sorturiko lan ezezagunak zabaldu nahi ditu Donostian sortu berri den argitaletxe honek. Sariak irabazi dituzten beste asko bezala, Mirari Garcia

de Cortazar egile gaztea da eta hau da bere lehen poema liburua.

Pasaiaiko Udalak antolatuturiko 'Pasaia Hiria' saria irabazi zuen 1993an. «Poesiaren magalean» izeneko liburua hamalau poema biltzen ditu. Idazlea Euskaltzaindia eta BBK erakundeak antolatzen duten Felipe Arrese Beitia poesia sariaketan ere gailendu zen ●

**TXERRAMA ERRUDUN  
IÑAKI ZUBELDIA**

ELKAR 100 or.

Txerrama baten eta bere txerrikume gosepasatuen abenturak umore eta imajinazioz beterik daude. Manuela txerramak zortzi txerrikume dauzka eta guztien gosea asetzeko modua topatzea izaten da egunero aurre egin behar izaten duen arazo nagusia. Jabeek ez

diete janaririk ematen eta beraietaz nazkatutik dagoen herrira joan beharra izaten dute. Txerriek izan ohi duten ausardia dela eta beti aurkitzen dute jateko zer-bait.

«Euskaldun bat Marten», «Josu Azalaren harribenturak», «Tximu bat klinikan» eta «Ipuin eroa» ere idazle beraren, Iñaki Zubeldiaren liburua ditugu ●

## B E G I - B E L A R R I

## L I B U R U A K

**Eguneroko irria bera bizi zen arte**


Sendoa argitaletxeak «Irriz eta malkoz», Lazkao Txikiren bertso eta gertakizun nahiz txistek bi tomatan argitaratu zituenean, asko entzun zitzaion jendeari, lehen tomoan azaltzen zen zenbait pasarte, txiste, bapateko erantzun, eta abarren berri. J. Berasategi, Sendoako arduradunak, aspalditxoan hasita bultzatu nahi izan zuen Lazkao Txiki horrelako zerbaiteara baina, gure bertsolari argiak ez zuen gogoko izan bere bizitzaren alde irrisua liburratzea. Txoriek hontza bezala (neurriak salbu) hartzen zuten errezeloa izan ohi zuen eta hain sentibera izanik, lan sako-nagoak liburuetaraztea hobesten zuen, bera ere horrelakoen irakurzalea zelarik.

«Gertaerak eta txistek» Auspoa saileko ale hau, oso erraz irensten den horietakoa da, Lazkao Txikiren ateraldiak entzuteko eta bizitzeko zortea izan zuen eta genuen zenbaitzuk, buruz jasotako erantzun zorrotz eta ateraldi ikaragarrien bilduma. Lazkao Txikik, uneoro eta nonahi egiten

zuen ustekabeko obrarik onentsuenen bilduma. Kontalari gehienak bertso mundua hurbiletik bizi dutenak direnez, umore estiloa ere parekoa behar da erabat jasotzeko pasarte bakoitzaren mezua.

Ez dira txiste eta gertakizunok irakurketa epel batean uztekoak, egoera eta irudiak irakurri ahala imaginatu eta marraztuz, lazkaotarraren itxura, hizketan ari zeneko aurpegikera eta ahotsa gogoratzeraino iritsiz gero, algara-saio atsegina egingo duzu.

Idatzia baino gehiago, aho hizkuntza oinarri duen egituraren emandako lerroak direla esango nuke, goierriko euskera ezagutzen dugunok behintzat oso erraz gogoan hartzeko moduan jarriak eta Auspoa sailak beti ohi duen bezala, Euskaltzaindiaren gramatika arauak kontutan hartu gabe. Beraz, zatika irakurtzeko atsegina eta Lazkao Txikiren sormen zorrotz-originala zenbaiterainokoa zen jakiteko egokia izateaz gain, ortografia aka-

**«GERTAERAK ETA TXISTEAK»  
LAZKAO TXIKI. SENDOA**

tsak zuzentzeko testu gisan ikasleei eskoletan emateko ere ezin aproposagoa. Lanean parrez aritzea baino zer hoberik?


**IÑAKI MURUA**







PAUSOZ PAUSO



Errioxako ardoaren ibilbidean mahastiak, mahatsaren jasotzea, ardandegia... ikus daitezke. Aldez aurretik baimena eskatuz gero, bodega batzuk bisitatzea ere posible izaten da.

## Ardoaren ibilbidea

**Errioxan** barna ibilbide interesgarri ugari egin daitezke eta hauetako bat ardoaren ibilbidea deritzona da. Proposaturiko abentura honek 75 kilometro inguru dauzka; autoz egin beharrekoa, beraz.

Ebroren goialdean, alde bietako lurretan, herrialdeko ardo ekoizpen hobereena egiten da, Logroño eta Haro bitartean. Ibilbidea iraila bukaera eta urria bitartean egitea gomendatzen da, mahatsa nola jasotzen den eta honekin batera egiten diren jai eta erritoak ikusi ahal izateko.

Errioxako hiriburua abiatzeko leku aproposa da. Logroñoeko alde zaharrean bodega zaharren aztarnak daude. Gaur egun, inguruko industria-poligoñoetara eraman dituzte gehienak.

Logroñotik atera eta

N-232 errepideari jarraituz, Fuenmayorrera iritsiko gara. XVI. eta XVII. mendeetako etxalde ugari daude bertan. Kale Nagusi Garaia 20. zenbakian interesgarrietako bat dago. Kanpoaldea erliebe berezi batez hornitua dago eta Santiago zaldi gainean dagoen estatua ere badu. Juan Martinez de Muncio arkitektoak XVI. mendean eginiko Santa Maria eliza ere ikusgarria da.

Canicero aldera jarraitzen den bitartean, ardandegia kopurua asko handitzen dela ikus daitezke. Errioxako udalik txikienetariko batetik ere igaroko gara, Torremontalbotik, alegia. Mahatsa ekoizten duten hamar bat lagun besterik ez dira bizi herri honetan.

Bidea garbitu eta zabaldu egiten da mahastiak areagotzen diren heinean. Ebrorekin berriz ere topo egin eta goialdean XVII. mendeko Davalillo gaztelua ikusten da. Hara igoz gero, mahastien bista interesgarria izango dugu begi aurrean.

Harorantz bidea jarraiki, interes historiko-artistikoa duen Briones herrira iritsiko gara. Etxeak, Cristo de los Remedios basiliza, plazak, Santa Maria eliza... guztia da ikusi beharrekoa.

Ollauri zeharkatu eta Harora iristen da bidea. Ardoak duen garrantzia izugarria da, Ardoaren Museoa ere bisita daitezke. Trenaren geltoki inguruan bodega asko daude eta aldez aurretik baimena eskatuz gero, sartzeta ere posible izaten da ■

### ESPARRUAK HEDATUZ

## Ardoa egiteko usadio zaharra

Mahastien lantzea oso zaharra den arren, joan den mendearen azken hamarkadetan Haro hedatzen hasi zen Errioxako ardandegien garapen moder-  
noa.


Erdi Aroko mahastiek oso lotura handia zuten garai hartan zeuden monastegiekin eta monjeek jakituria alkimikoarekin.

Ingurune honek duen mikroklima da bertan sortzen den mahatsen kalitate

ezin hobearen arrazoi nagusia. Jendearen abilezia ere kontuan hartu beharrekoa da.

Mahats mota desberdinekin egiten da lan Errioxan. Tempanillo izenekoa da gehien landatzen dena. Ardo beltz sendoak, mustioa Hollejo eta haziak hartutuz lortzen da. Ardo gorri eta gazteak mustioa fruituaren zati solidoekin kontakturik izan gabe hartzen denean lortzen di-


ra, eta zuria eta lehorrak, berriz, mahats biurekin egiten dira ■





**HURA OTORDUA!**

MATTIN  
Komikilaria




**Espezializazio bidean**

Arrautza frijituak eta patatak erraz prestatzen ditu, baina orain, kroketak eta entsaladak egiten espezializatu nahi duela aitortu digu Mattinek. Dena den, nahiago du lagunek bera gonbidatzea.

Hozkailua erdi hutsik izaten du baina berakata, arrautzak eta sagardoa ez dira sekula falta. Haragia, berriz, zaila da marrazkigilearen etxean topatzea.

Etiket kanpo, sukaldean sartu beharrik ez duenean, gauza berriak dastatzea atsegin du, baina normalean nahiko tradizionala izan ohi da.

**Proteina eta propietateak mantenduz**



**Mikro-uhin-labean prestatuz gero, euren balio nutritibo guztia mantentzen dute barazkiek.**

**Janaria** prestatzeko hamai-ka modu badaude ere, guztiek jakina da batzuk besteak baino naturalagoak eta hobeak direla. Mikro-uhin-labea ortuari eta barazkiak prestatzeko modurik hobere-rena dela diote aditu batzuek. Propietate eta balore nutritibo- ez gain, itxura fes-koa, kolorea eta forma ber- din mantentzen baitute. Oso denbora epe motzean egos-

ten direla ere aipagarria da.

Orokorrean erabiltzen den prestatzeko modua honakoa da: barazkiak ontzi itxi batean eta ur piska batekin sartu behar dira mikro-uhin-labean. Ur asko dūten barazkiek ez dute ura bota beharrik izaten, tomate, piper edo pepinoa, esatera-ko. Barazkiek askatzen du- ten ura lurrundu ez dadin, ontzia ondo itxi behar da.

Izoztea eta mikro-uhin- labe-eei esker, urte guztian zehar gustuko platerak izan ditzakete elikadura naturala atsegin dutenek.

Egosteko denboran dago edozein plater ondo atera- tzeko sekretuetariko bat. Barazki guztiek ez dute den- bora berdina behar. Izoz- tuek, adibidez, freskoek baino denbora gehiago- be- har dute ■

**ARGITALPEN BERRIAK**

**"ZURE SENTIMENDUAK" BILDUMA**

**AUKERA ZABALA!!**




- 1.- HASERRE NAGO
- 2.- TRISTE NAGO

Pasiotarrak - 48290 ● EUBA ☎ 6308036 FAX: 6308028

**BATA ZURIA ERANTZITA**

**JOXERRA AIZPURUA**  
Elhuyar-eko kidea



**Europar  
hizkuntzak ere  
injinerutzan**

1990. urtean Europako Ekonomi Elkartean informazio-teknologiari hasiera ofiziala eman zitzaion. Aldez aurretik, hainbat esperientzia bazeuden munduan zehar, hala nola Quebec-ekoa, baina EEEK hartutako erabakia arrazona-mendu berezi baten inguruan ezarri zen.

Gauza jakina da Europar hizkuntza ugari ditugula; bazuak besteek baino hitzun gehiago badituzte ere, hizkuntza guztiak, txikiak barne, dute hitzun-kopuru adierazgarria. Hizkuntza-kopuru anitza izateak eta merkatu bateratua lortzeak, hasieran behintzat, aurkakoa dirudite, baina horixe da egoera egun Europan.

Europako konpetitzaile nagusiak diren Japoniak eta EEBBek ez dute aipatu arazoak. Batean japoniera nagusi da eta bestean ingelesa. Beraz herrialde hauek hizkuntza ez da oztupoa pertsonen eta produktuen zirkulaziorako.

Hizkuntz aniztasuna duen merkatu batean, itxuraz enbarazoa dena abantaila nola bi-

lakatu? Galdera honen erantzuna bilatu nahian ondoko arrazona-mendua aurkitu zen: Europa hizkuntzanitza dela asimituz hizkuntza desberdinen arteko komunikazio-zubiak garatu behar ditugu dagoen teknologia baliatuz edo berriak sortuz. Bide honek inbertsio handiak eskatuko ditu, baina lortutako teknologia balio erantsi handikoak izango direnez zenbait produkzio-prozesutan errentabilizagarri izango dira.

Izan ere, teknologia alor berri honetan aintzindari izan daiteke Europa, zeren eta beste leku batzuetan ez baitute teknologia horiek garatzeko beharrik. Beraz, zenbait teknologiatan lehenak izateak oso interesgarritzat jotzen da EEEKo administrazioan.

Eta euskararentzat edo euskararen moduko hitzun-kopuru ez oso handia duten hizkuntzentzat zer?

Euskara zirkuitu teknologiko horretan sartzen ez badugu, euskara ez da interesgarria izango Europako merkatuan, baina bestalde, euskara ikuspuntu komertzialetik soilik ikusten badugu, euskararen merkatua beste hizkuntza batzuenarekin konparatuz, txikia dela jakin badakigu. Beraz, ezin dugu merkatu-legeen arabera, soilik, euskara utzi; euskara zirkuitu teknologikoetan sartzeko administrazio publikoaren borondate eta ekimena behar da. Dena den iniziatiba pribatuari dagokio ildo honetan erronkari heletzea.

Une honetan 1994-1998 bitarteko diru laguntzen deialdia EEEKen zabalduko dago. Gozen bada, batzuk proiektuak aurkeztera eta besteak proiektuak bultzatzaera eta sustatzaera.

**Informatika eta kirurgia**

**Zirujau** plastikoaren lana asko erraztu da informatika aurrerakuntzei esker. Ebakuntza gelara sartu, eta pantaila batean zehaztasun guztiak dituela ikusten du bezeroaren aurpegia.

Bezeroa, bulegora doanean, bere nahiak azaltzen dizkio medikuari. Aurpegiaren kasuan, argazkiak atera eta hauen gainean, egin nahi diren aldaketak markatzen dira. Jarraituko den prozesu guztia agertzen dio medikuak bezeroari. Gauzak oso argi izan behar dira ebakuntza gelara sartu aurretik.

Baina kirurgia plastikoa ez da estetika arazoak aldatzeko bakarrik erabiltzen, kirurgia konpontzailea ere bada aldi berean. Orain hamar urte ezinezkoak ziren ebakuntza ugari, fidagarritasun, eraginkortasun eta zehaztasun osos egin daitezke gaur egun.

Irudi tridimensionalak erabiliz, azterketa sakona egin dezake medikuak ebakuntza gelan sartu aurretik. Ebakuntza hasi baino lehen eta ordenadorearen lagun-

tzaz, puntuz puntu gaixoaren burua edo eta aurpegiko zatia berreraiki dezake. Zehaztasuna oso handia da eta bezeroak alde aurretik badaki ebakuntza ondoren aurpegia nola geldituko den.

Lehen momentutik, zirujauak radiodiagnostiko unitate neurologikoarekin batera lan egiten du. Tratatu beharreko zatiaren argazki pila ateratzen dira erresonantzia magnetiko edo scanneraren bidez. Honela, oinarrizko datu basea eratu eta argazki hauekin egiten da lan. Odolaren zirkulazioa nolakoa izango den ikusiko da eta nahi izanez gero, irudiei mugimendua emango zaie. Lehenik, ordenagailuan simulatzen da ebakuntza, sor daitezkeen arazoak ikusi eta saihesteko. Benetako ebakuntza egingo da ondoren.

Aurrerakuntza informatikoei esker, kirurgia konpontzaileak sekulako aurrerapausoa egin du. Jendearen hazpegiak guztiz eralda daitezke, aurpegi 'berriak' egin daitezke ■



**Informatika alorrean ematen ari diren aurrerakuntzek zerikusi eta eragin handia dute kirurgia plastikoaren bilakaeran**

## Landaketa ondo egitearen garrantzia

**Edozein** landareren bizi-tzan, landaketa egiten den unea momenturik garrantzitsuenetakoa da. Kontuz eta zenbait gauza kontuan izanda egiten bada, zeregin erraza eta sekreturik gabekoa da. PHa, argia eta antzeko zenbait aldagai go-goan izan behar dira, eta ez zuloa egin, landarea han sartu eta sustraiak estali ondoren ura bota.

Prozesua ondo hasi eta zenbait galdera planteatu behar dira lanean jarri aurretik. Bost dira oinarritzko galderak: landareak heldutasunean izango duen tamaina, zenbat argi dagoen landarea jarri nahi dugun lekuan, tenperatura zenbatekoa den, lur mota eta hezetasuna.

Pausoz pauso honakoa litzateke landaketa prozesua: -Landatu beharreko lekuko belar txar guztiak kendu behar dira.



**Landaketa egiteko unea oso garrantzitsua da landare ederra eta luzaz eduki nahi bada. Landatu ondoren ureztatzea da kontuan izan beharreko gauza garrantzitsuenetakoa.**

-Pala hartu eta landaketa lekuan zuloa egin. Diamentroa landarearen tamaina eta motaren arabera izango da. Sakontasuna, berriz, sustrai eta behealdearen altueraren arabera.

-Lur mota eta ura xurgatzeko duen erraztasuna aztertu.

-Lurra oso ondo prestatu behar da, asko landu behar da

landarea bertan jarri aurretik. Lurra prestatzeko materia organiko eta inorganikoa beharren arabera bota. Ez dago neurri zehatzik eta hobe da gutxiegi botatzea gehiegi baino. Gehiegi botatzeak landarea honda lezake.

-Zuloa egin eta ongarri birkorkatu bota.

-Sustraiak pixka bat moztu eta zuloan sartu.

-Zuloa alde zurretik prestaturiko lurrez bete kontu handiz.

-Enbor ongarri txikitua gainetik jarri eta guztia asko ureztatu.

—Landaketa egin ondoren, urte batez edo, asko begiratu behar da ureztapena ■



Kaskazuri Kalea Tel. 49 32 26 OIARTZUN

**Kaskazuri Kalea Tel. 49 32 26 OIARTZUN**



# ARGIA

## ASTERO ETXEAN

### ARGIAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ

- ✕ ARGIA etxean hartzeak abantaila guztiak ditu.
- ✕ Zenbaki guztiak jasoko dituzu, kalean baino % 20 merkeago.
- ✕ Euskal Kulturaren Urtekaria etxera iritsiko zaizu.
- ✕ ARGIAzaleen elkarteko partaide izango zara.
- ✕ ARGIAren eskaintza berezietan parte hartu ahal izango duzu.

ORAIN ARGIAKO HARPIDEDUN EGINEZ GERO  
HAUETAKO KONPAKTO, BIDEO EDO LIBURU BAT  
ESKURATUKO DUZU

## DOHAINIK



BARNE KANTA

KD



BIDEOA



MANOL / KARLOS GIMENEZ



TXIMELETAK SABELEAN  
ANDONI EGAÑA



MANHATTAN  
EDORTA JIMENEZ



**HARPIDETZA TXARTELA**

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA \_\_\_\_\_ 1. DEITURA \_\_\_\_\_  
 2.DEITURA \_\_\_\_\_ HELBIDEA \_\_\_\_\_  
 TFNOA \_\_\_\_\_ HERRIA \_\_\_\_\_  
 POSTA KODEA \_\_\_\_\_ HERRIALDEA \_\_\_\_\_  
 BANKU EDO AURREZKI KUTXA \_\_\_\_\_  
 SUKURTSAL HELBIDEA \_\_\_\_\_ SUKURTSAL ZKIA. \_\_\_\_\_  
 KONTU KORRONTEA/LIBRETA \_\_\_\_\_  
 Entitatea Entitatea K.D. Kontu zenbakia

**HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne)**

Hego Euskal Herria  
11.600 pzta  
Ipar Euskal Herria  
685 libera  
Espainia 11.600 pzta  
Beste Atzerriak  
15.100 pzta  
Airez 23.850 pzta

**ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15**

**LASARTE-ORIA 20160**

## Gillaume Irigoien: «Iparralde eta Hegoaldearen arteko zubia falta da»


**E**uskal Telebista Ipar Euskal Herrian sartuz doa, apurka, baina bertan eginiko saioak oso urri dira oraindik. Astelehenetik ostiralera bitartean, zazpi minutuz irauten duen «Iparraldearen Orena» informazio saioa aurkezten du Guillaume Irigoienek.

### Egun zein da ETBren egoera Iparraldean?

Korrespontsalia bat dago, eta emankizun propio bakarra egiten dugu, «Iparraldearen Orena». Aktualita-

tean gelditzeko formula ona da, baina beste mota bateko saioak ere egin behar dira.

**Hego eta Ipar Euskal Herriak trataera desberdina jasotzen al dute?**



«Alfabetatua ez dagoen jendeari asko kostatzen zaio ETBko euskara ulertzea». (Argazkia: Joxean Goya).

Egiten den indar guztia Hegoaldetik etortzen da. Hamar urteren buruan Iparraldekoek ere hori beren gain hartzea ikusi beharko litza-teke.

### ETB Iparralde osoan ikusten al da?

Oraindik ez. Legez kanpoko errepikagailu sare baten bitartez, leku gehigotan ikustea lortu da, baina itzalguneak ere badaude. Frantses legearen aitzinean ETB atzerriko telebista da.

Jendeak ETB jarraitzen du eta ikaragarriko ilusioa du. Ilusio horretaz baliatuz gauza politak egin daitezke. Denek elkarrekin zer-bait egitea posible da; falta den bien arteko zubia beharrezkoa da.

### Hizkera aldetik arrotza nabari al da ETB?

Nahiko indarra eginik ere arazoak izaten dira guztia ulertzeko. Alfabetatua ez dagoen jende asko dago eta horiek ez dute batere ulertzen. Alfabetatua dagoen jendeak bai, ohitua dago Hegoaldeko jendearekin hitz egiten eta konprenitzen.

### Zein irtenbide ikusten diozu boni?

Konponbidea lankidetzan datza. Urteen poderioz konponduko da, ikastoletatik ateratako haurrak handituko direlarik. Baina indarra egin daiteke lankidetzaren aldetik eta horrela, behar bada, Iparraldeko errealitate gehiago sartu ETBn.

AINHOA GERRA

### IKUSITAKOAK IKUSITA

#### Txapasi esker

«**Barsobian** aurki dezakegu euskal rockaren txoko bakarra». Horra hor Fermin Muguruzaren adierazpena Euskadi Zuzenean saio batean. Ozenki esandako kritika latza. Gainera, Kataluniako telebistak geureak baino minutu gehiago eskaintzen bide dio bertoko musikari. Ez da harritzekoa.


Barsobian entzuten duguna aski ez dela begi bistan dago baina egun su eta gartsu dabilen mugimendu honen islada den beste espaziorik ez dago. Gibelera begira dago Txoria. Imanolen ahots sakonak kantu zaharren bilduma bat aurkezten baitu. Kantuz Bizi saioa nahi eta ezinezko ahalegina da. Denok espero genuena hai-zeak eraman zuen eta buru askotako collage bat aurkeztu digute. Ez dago ez historiari ezta iritzirik ere. Saioak ez du bihotzik. Donostian izaniko kantaldi bat zatikatu dute solomo batetik xerrak egiten diren bezalaxe. Euskal musikari zor zaionari ez diote erantzun. Iragana ez dago eta etorkizuna hobe aipatu ez. Dena dela, ezin dugu izkutatu Imanolen txapa honetako kantu batzuek azala pinportzen digutela. Oroiminaren legea da.

Aitzitik, beste muturrean dagoen Barsobiako Txapasek ondo daki zein den gazteen nahia: Negu Gorriak, Zarama, Hertzainak, EH Sukarra...

IMANOL AGIRRE

# Denborapasa

## Gurutzegrama



**EZKER ESQUIN:** 1.- Libertatea. 2.- Taupa. Lehen biak. 3.- Iparraldean, zulo. Begian kokaturiko mintz zirkularra. 4.- Hitzak. Sanferminetako martxa ezaguna. 5.- Bizkaieraz, gehiegi. Izen arabiarra. Kriptonen sinbolo kimikoa. 6.- Oroitu. Röntgenen sinbolo kimikoa. 7.- Kontsonantea. Gizakien izpirituzko osagaia. Infusio mota. 8.- ... egina, total egina. Edari alkoholoduna. Lehenengoa. 9.- Bokal bikoitza. Lehen bakoitia. Gauero egin ohi dugu. 10.- Akuri. Adorea.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Futboleant, atzealdean jokatzeko dutenak. 2.- Arloak. Nauka. 3.- Pl. emakumezkoen barne jantzia. Bat. 4.- Igelaren lehengusua. Kontsonante bikoitza. Boroaren sinbolo kimikoa. 5.- Herri hizkeran, eta. Pl. eserleku mota. 6.- Erne! Itsas arrain preziatu. 7.- Maiz. Mila. 8.- Uranioaren sinbolo kimikoa. Bi. Bokala. Bihi. 9.- Kaiak. Tona. Zintzo. 10.- Nafarroako herria. Bokala.

## Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



### 8 letra

Batasuna  
Lituania  
Urontzia  
Taupadak

### 7 letra

Deitura  
Irazeki  
Irudiak  
Jantoki

### 4 letra

Adio  
Ahia  
Aroa  
Arra  
Asko  
Atal  
Atso  
Banu  
Buka  
Ekia  
Ibia  
Idia

Irri  
Jaka  
Laiia  
Lana  
Oilo  
Orri  
soka  
Talo  
Tren  
Urka  
Zapi  
Zura

### 2 letra


Ae  
An  
Da  
In  
Lo  
Ni  
Ol  
Si

### 3 letra

Ari  
Art  
Ihi  
Ito




**ERANTZUN** zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den pertsonaiaren izena, Realeko atzerritar baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12

Hilabetea		Burrutua		Lege		Eraila
Margoa		Eramaten nauzue		Iñi pareta lotzeko pieza		
▶		▼		▼		▼
		12				5
Futbol jokalariaik		Kontsonantea		Harlauzak		6
Daukat		Taupak		Haur hizk. musu		
▶		▼		▶		▼
		Jarria		▶		8
		Diruzko zigorra		▶		
Muga		▶		Bokala		▶
Jaurtikigai		▶		Bokala		
▶		▶		Lehenegoa		▶
		Ibaia		Argoia		
		Sufrea		▶		11
		▶		▶		
... Dei		▶		Bokala		▶
Plangintza		▶		Bat		
▶		▶		Ald. Giro-nako ibaia		▶
		Zah. fusila		Hauturaren onomatopea		
		Norat atzizkia		▶		3
Ahar		▶		H <sub>2</sub> O		
Modua		▶		▶		Bokala
▶		Sarrera		▶		
		Bokala		▶		1
Mea beltz		▶		Nasa		
7						9

# Hieroglifikoa



Non uzti dituzu etxeko giltzak?

## Aurreko asteko soluzioak

TXEMA																	
OLAZABAL																	
●	P	●	S	●	D	●											
GOZOKIA																	
●	T	●	O	●	L	●	O	●	K	●	A	T	Z				
TXERPOLARIA																	
●	O	●	R	●	E	●	I	●	N	●	A	●	G	●	A	L	
AROAIBABAGA																	
●	I	●	M	●	B	●	A	●	L	●	A	●	U	●			
EMEARERET																	
●	A	●	N	●	D	●	E	●	R	●	E	●	A	●	S	●	O
ALAITASUNA																	
●	O	●	K	●	E	●	K	●	A	●	O	●	I	●	N		

## Gurutzegrama

UZKER ESKUTU 1. Betekizuna. 2. Inazko. Oe. 5. La. Ez. Ni. A. 4. Abekideak. 5. Kin. Alorra. 6. Alergia. Ek. 7. Epa. Anker. 8. Re. An. Ala. 9. Andaria. Oe. 10. Kat. Inak.

GOTTIK BEHERRA 1. Bilakaerak. 2. Erabilpena. 3. Ta. Enea. Di. 4. Ezer. R. Aa. 5. Kezkagari. 6. Ik. Biltza. 7. Zindak. Ap. 8. U. Lev. Ea. O. 9. Na. Ateroa. 10. Atakak. AFK.

## Hieroglifikoa:

Arrasate

## Bosteko ttipiak

A 1. Laguna. 2. Gizon. 3. Luzera.

4. Noren. 5. Banana.

B 1. Bozate. 2. Zizur. 3. Gazitu.

4. Tutua. 5. Zeruak.

## Kate hitzak

EGIN	LEKA
ARIN	ZURI
ZINGI	TRARON
AA	UKABILAK
K	IRUNGOA
ILLAR	TAIO
O	ITARRA
LANUZTEA	ZN
ART	ZANTZUA
KATA	LIZIRI
NAGO	LANA

# Bosteko ttipiak

- Pl. itsas arraina
- Gipuzkoako ibaia
- Norbaiten
- Alez ale
- Izanak

	1	3	5
1		2	4
	2		
3			
	4		
5			

- Bizkaiko ibaia
- Erabilera
- Batetik bestera garraiatu
- Ipar-orratza
- Ez zakarrak

## Zenbaki bakoitzeko hitz bat eta bera

	1	3	5
1		2	4
	2		
3			
	4		
5			

# «Genius loci»

**HAIZE** Orraziaren ondoan bildu ziren. Leku berezi xamarra da horixe prentsaurrekoak eskaintzeko, eguraldi ona behar da eta hala ere haizea dabil han ia beti-izenak ere zer edo zer esaten du-zailtasunak beraz soinu hartzaileentzat. Ezo-hizkoa da lekua eta hori bere alde, horrek ere izaten du garrantzia agiriei publizitatea ematerakoan. Ez ninduten asko interesatzea lortu, damurik. Zaila da kazetariak topikoetarik irteeta, eguneroko lanak asko markatzen du, eta kazetariak, bada-kizue, nekez ohi dira lan egiten duten hedabidearen jabe, guztiok bezalako morroiak dira batzuek bestela uste duten arren. Ez zuten gauza berririk esan, nire ustez behintzat, baina kazetarien elgarretaratze haren herri eman zuen kazetari baten hitzak gogoan gelditu zitzaizkidan ileak orrazian bezala: leku honek suposatzen duen sinboloagatik egin dute prentsaurrekoa hemen, esan zuen.

**BAINA** zeren sinboloa ote da Haize Orrazia?

Gainontzekoen aldean metro karratuko etxebizitza gehien, estuen eta ahulen duen Donostiako auzune batean bizi naiz. Baina ez nuke egia osoa esanen halaberean hiriburuak duen eskultura kopuru handiena biltzen duela aitortuko ez banu. Intxaurren batzuk zeuden lehen, bertako biztanleek landatuak, belardi eder, amankomun eta denok zaindu eta baliatu batean. Ibarrolaren eskultura triste, plano eta auzo guztiek gorrotaturikoa dago han orain.

Gaitzeko burdina puska da, zementua gizakortzeko pertsonen irudi errekortatuak dauzkana, Sakanako zeharbideko ezpondetan ipini dituzten ardi metalikoen antzera. Hori izan zen auzunean jaso genuen lehen ondare publikoa. Handik laster, ondoko karrefur baten erdian, Ugarte de Zubiarraien-en beste eskultura bat ezarri zituen, lekuari dagokion bezala zut eta luze, Ibarrolarena bezala burdina herdoilduan. Geroago Ibarrolak bere 'bihurrikierietako bat' ezarri zuen, eta ezarri aldera eskulturaz ase, txapelokerrez gain eta azpiegituraz barau zeuden Intxaurren



**KOLDO IZAGIRRE**

Idazlea

Sur, alegia Intxaurren Goikoako biztanle kezkatuei 'fazistak' esan behar izan zien eskultore komunistak, alkateari bigarren ahotsa eginez. Laugarren eskultura ipini digute oraindik orain, Koldobika Jauregirena, autopistaren beste aldean egin berria duten bigarren karrefurrean, Intxaurren Oeste, alegia, Intxaurren Berri edo Polloegainan. Boskarrena ere agindu digute lasterrera. Eskultore asko dauzkagu, eta Donostiako badiaren jira ez da obra bana hartzeko adina luze.

**BAINA** zeren sinboloa ote dira Intxaurren doko eskulturak?

Txillidak berak komentatu zidan behin Haize Orrazia delako lekuan dauden zu-loetarik As-ka-ta-su-na esanarazi nahi zio-la haizeari. Baina orraztearekin konformatu behar izan zuen, haizea bera baita nonbait askatasuna, eta horregatik jotzen du zakar ikara emateraino, zer esan nahi duen ez dakigula. «Hondarretako Txar-rantxak» esaten diote, besterik gabe, nire lehengusu nafarrek *El Peine de los Vientos*-i. Eskolatu nahi izan ditut, itsaslamiaren batek atzendentako orrazia, eta ez txar-rantxa, izan litekeela Txillidarena, baina euskaldun peto montañakoei 'pelukeriko kontue' iduritzen zaie «Haize Orrazia»

esatea burdina puska horiei. Ez dakit Txillidak berak hobetsiko lukeen, baina ezinen luke ukatu Lesakako Laminazioetan badakitela zerbait burdinaz.

**BAINA** izenik ere ez duena izan ote liteke sinbolo?

Donostiako Avenida de Españako lehen etxean Sistiagak eskegitako hodi luzeska haiei «Idorreria duenaren Ametsa» esaten genien ume kozkorretan, alegia eta mokordoak zirela.

Basterretxearen Bakearen Usoari «oi-loloka» esaten diote gaztetxoek, gaztelaniaz berriz *la gallinota*. Oteizak Kursaal inguruan paratu nahi lukeena ere ez litzateke geldituko ezizenik gabe, egizue kontu Jarraiko hankagorri alu horiek ETako anagraman aizkoraren giderran kiribildua ageri den sugari ere «aizkora bezain bortitz, suga bezain zuhur» ez diotela begiramen handirik, «xixarea» esaten diote eta...

Urteak pasako dira intxaurrendotar berriek harri eta burdina hauek bataiatu arte, horretarako bameratu eta ironizatu egin beharko baitituzte, eta egun ez dute horretarako astirik. Obretako adreiluak eta lanabesak etxera nola eraman, *jakoa* non lortu, autoa nori kendu, badu bertako biztanleriak bestelako kezkarik, ez baikara denak kartoi zatiak biltzetik bizimodua ateratzen dugun ijito jatorrak. Jendea burumakur eta haserre pasatzen da Intxaurren doko eskulturen ondotik. Baina lasaitzen denean, Intxaurren gazte honek sustrai hartutakoan, herriaren irudimena artista eta idazleena baino bortitzagoa denez, sortuko du izen ederrik oraingo, zer esan nahi duen ez dakigun artepuska hauentzako. Orduan deitu ahal izanen ditugu prentsaurrekoak, eskulturei izen bana ezarri izanen diegulako geuk ere gure sinboloak edukitzearen. Eta esanen dugunaren hutsak lekuaren sinboloak ordezkaturiko du, menturaz.

# Euskal Herriko Egunkaria

*Zure Egunkaria*



**Egunkaria**

...s  
...e  
...i  
...n  
...a  
...l  
...e  
...n

ON



EUSKADI  
Gara  
Euzkadi Gara

FMI